ABORTUA, AHULA BAZTERTZEA

✝ Jose Ignazio Munilla
Donostiako Gotzaina

ABORTUA,
AHULA BAZTERTZEA

Hitzaldi hau barne:

Gazteak ebanjelizatu
«egoera afektibo» larrian

PUBLICACIONES idatz ARGITALPENAK
SAN SEBASTIÁN • DONOSTIA

© J.I. Munilla Aguirre
Azaleko diseinua: Felix Ruiz

© idatz Elizbarrutiko Argitaldaria.
Editorial Diocesana
Urdaneta, 10
20006 DONOSTIA - SAN SEBASTIÁN
Tel. 943 465 326. Fax 943 470 363
E-mail: idatz@idatz.euskalnet.net
www.idatz.com

I.S.B.N.: 978-84-96903-83-8
Depósito legal: SS 278-2014

Impresión: Antza S.A.L. Zirkuitu Ibilbidea, 2.
20160 Lasarte-Oria

AURKIBIDEA

Aurkezpena 11

ABORTUA, AHULA BAZTERTZEA

1. Zer dio abortuaz Frantzisko Aita Santuak? ... 16
2. Abortua den bitartean ez da bakerik izango .. 19
3. Baztertzearen aurkako sendagaiak:
samurtasuna eta esperantza 22
«Ez beldur izan samurtasunari!» 22
«Ez diezagutela itxaropena ostu!» 26
4. Egia morala abortuaz. Irizpideak argituz 28
1. «Ez dago behar adinbateko kontsentsurik eraberritze hau egiteko» 30
2. «Atzerakada erreakzionarioa da lege-egitasmo hau; jarrera politiko kontserbatzaileei amore ematea da» 31
3. «Gai honetan boto-askatasuna eman behar liekete alderdi politikoek beren parlamentarioei 33
4. «Abortu-lege murriztailea emateak Europako beste nazio batzuetara alde egitea ekar lezake. Ez da komeni Europan gehienek duten markotik urrutiratzea» 33
5. «Zenbait ekintza arautzeko eskubidea dute Estatuek, zeren, etika aldetik eztabaidagarri izanik ere, legez bideratu beharra baitute, ahalik eta gaitzik txikiena izateko» . 34

6. «Abortuaren legea eraberritzeko egitasmo horren atzean Eliza Katolikoaren presioa dago, ez baitu bereganatu laikotasun printzipioa eta bere morala ezarri nahi dio gizarte osoari» 35
7. «Hobe luke Elizak pobrezian bizi diren haurren duintasunaren alde borrokatzea, oraindik etorri ez direnengatik itsutzea baino. Hobe da mundu honetara ez etortzea, bertan alferrik sufritzea baino» 36
8. «"Gallardón" lege-egitasmoa bat dator "*pro-vida*" mugimendukoen eta katolikoen proposamenarekin» 38
9. «Emakumearen askapenarekin zerikusia du abortuak» 40
10. «Ez da inor abortatzera behartzen, baina ezin da emakumea ama izatera behartu ere» 43
11. «Norberaren kontzientzia da bere ekintzen azken epailea, baita abortatzearena ere. Kontzientziaz hartutako erabakiak errespetatzea eskatzen du gizakiaren duintasunak» 46
12. «Ezkurra ez da haritza. Arrautza ez da oiloa. Umekia ez da giza pertsona 48
13. «Enbrioi izan aurreko epealdian, lehendabiziko hamalau egunetan, ez da artean

indibiduaziorik. Nola esan hori giza pertsona dela, ez badakigu oraindik gizaki bakarra izango den ala bikiak izango diren ere» 48
14. «Eliza Katolikoaren Irakaspenak ez du argitu zein unetan isurtzen duen Jainkoak arima giza gorputzean. Aquinoko San Tomasek XIII. mendean zioenez, haurdunaldiko 40. eta 90. egun bitartean isurtzen da arima» 50
5. Epilogoa. Amaierako zazpi gogoeta 54
1. Fedeak biziaren duintasuna agertzen digu 54
2. Guztiona den lurzoru etikoa 55
3. Arrazoimenaren itzalaldia 56
4. Funtsezko arazo egiazkoa, krisi existentziala 58
5. Biziaren alde ala abortuaren aurka? 60
6. Adopzioa duin bihurtu 62
7. Eliza ama 63

GAZTEAK EBANJELIZATU «EGOERA AFEKTIBO» LARRIAN

Lehenengo zauria: NARTZIZISMOA 73
a) Jainkoak digun maitasunaren aldarrikapenean oinarritzen da autoestimua 78
b) Espiritu-bizitza orekatua (mistika-aszetika) 82

c) «Idealismoaren» eta «errealismoaren» artean, «laguntasun espirituala» 84
d) Pobreengan dagoen Kristok ebanjelizatzen gaitu 86
Bigarren zauria: PANSEXUALISMOA 88
1. Lehenengo, sexuaren eta haurrak sortzearen arteko «dibortzioa» gertatu zen 91
2. Gerora, maitasunaren eta ezkontzaren arteko «dibortzioa» gertatu zen 92
3. Azkenik, hirugarren «dibortzioa» gertatu zen: sexuaren eta maitasunaren artekoa ... 92
a) Kastitatearen bertutea berreskuratu, gaizki ikusia izatetik 95
b) Heziera afektibo-sexualerako ikastaroak .. 98
c) Edertasunean hezi 99
Hirugarren zauria: MESFIDANTZA 102
a) Elkartasun-esperientzia Elizaren baitan . 105
b) Konfiantzaren eta norberaren erabateko eskaintzaren Ebanjelioa 107

Aurkezpena

Eskuetan duzun liburu xume honetan, Jose Ignazio Munilla Donostiako Gotzainaren bi hitzaldi dituzu, testuinguru desberdina eta magisteritza-maila ere desberdina dutenak:

1.- Lehenengoa, «idazki pastorala» da, «*Abortua, ahula baztertzea*» izenburu duena; 2014ko martxoaren 5ean (Hausterre-egunean) argitara emana izan da. Idazki pastoral hau, 2013ko abenduaren 20an, abortua dela eta, Ministroen Kontseiluak aurkeztutako «*Sortutako Bizia eta Haurdunaldian den Emakumearen Eskubideak Babesteko Lege-egitasmo Organikoa*»-ren inguruan gure gizartean kalean irekia dagoen eztabaidan laguntzeko asmoz idatzia izan da. Idazki honetan bilduak dauden gogoetek beren edukia eta balioa izaten jarraituko dute, jakina, idatziak izan diren inguru mari historikoak igaro ondoren ere.

Idazki honetan, Frantzisko Aita Santuak, bere aitasantualdiko lehenengo urtean zehar, abortuaz adierazi izan dituen intuizioak bildu nahi izan dira. Idazkiaren titulutik beretik hasita, Aita Santuak, sakontasun existentzial

bereziz, erabili izan dituen gaiak eta hizkera ere jaso nahi izan dira. Bide honi jarraituz, «samurtasuna» eta «itxaropena» aurkezten dira, zauritua dagoen gizadi honentzako egiazko sendagaitzat.

Aldi berean, arrazoi etikoak ere aurkitu ahal izango dira idazkian, jendarteko eztabaidetan, prentsako artikuluetan nahiz era askotako adierazpenetan, abortuaren alde erabili ohi diren argudioei erantzuteko. Eta azkenik, zenbait argibide ematen da, abortuaren gertaera lazgarria ulertu eta berari aurre egiteko.

2.- Argitalpen honetan eskaintzen den bigarren idazkia, Jose Ignazio Munilla Gotzainak, Valentzian egindako Gazte Pastoraltzako Lehenengo Kongresuan, 2012ko azaroaren 3an emandako hitzaldia da. Jose Ignazio Munilla Gotzaina da Espainiako Gotzainen Batzarreko Gazteria Saileko arduraduna, eta berak eman zuen, Valentziako Katedralean, «*Gazteak ebanjelizatu, "egoera afektibo" larrian*» tituludun hitzaldia.

Bi jardunaldi hauek argitalpen berean batera sartu nahi izan dira, bietan darabilen gaiak baduelako elkarrekiko harreman estua eta

zerikusia. Hain zuzen ere, abortuaren dramak lehenagokoa den beste izaera gogor bat ezkutatzen du: pertsonen arteko maitasuna era helduan bizi ahal izateko ezintasuna, alegia.

Argitalpen honek hau du helburu: pertsonen arteko maitasunari eta pertsonaren bizitzari berari dagokien duintasuna lortzeko zeregin handian laguntza eskaintzea. Gure gizartearekin eztabaidan sartzekoan, ez dugu geure kristau-ikuspegia ezkutatzen; izan ere, sinesturik gaude, Jesu Kristok agertzen diela gure egunotako gizonari eta emakumeari beren duintasun egiazkoa; baita guri guztioi eman zaigun maitasunerako bokazioa ere.

ABORTUA, AHULA BAZTERTZEA

Duela gutxi sartu da Elizaren hizkera arruntean, gure Aita Santu maite Frantziskok erabili ohi duen «descarte» (baztertze esan genezakeen) hitza. «Bergoglioren hiztegian» azaltzen diren hitz berri horietako bat da. Jendaurreko zenbait hitzalditan eta bizitza moraleko zenbait alor aipatzean erabili izan du Frantziskok hitz hori.

Evangelii gaudium (EG) aholku-hitz apostolikoan, ekonomia baztertzaileaz mintzatzean «descarte» hitza darabil Frantziskok, halakoa «ekonomia hiltzailea» dela esanez. Eta zehaztu egiten du bere salaketa profetikoa: *«Erabili eta gero bota daitekeen kontsumo-gaitzat hartzen dute gizakia. "Descarte" edo baztertzearen kulturari ekin diogu eta, gainera, bultzatu egiten dugu. Ez da, besterik gabe, esplotazioa eta zapalketa, baizik beste zerbait (...) Bazter-tuak ez dira "esplotatuak", baizik eta honda-kinak, "soberan" daudenak»* (EG 53. zk.).

Balio nagusitzat etekina jartzen duen kapitalismo basatiak dakartzan injustiziak aipatzeko erabili ohi duen baztertze hitz bera darabil abortuaz mintzatzean ere. Adibidez, 2013ko irailean izan zen Elkarte Mediku Katolikoen Nazioarteko Federazioaren Elkarketan honako hau eskatu zien Frantziskok ginekologoei eta osasun-langileei: egin zezatela baztertzearen kulturaren aurka eta defenda zezatela bizia. Hala berean, Egoitza Santuaren aurrean akreditaturiko Nazioarteko Diplomatikoei 2014ko urtarrilean zuzendu zien hitzaldian, abortua baztertzearen kulturakoa dela esan zuen berriz ere, eta izugarrikeria iruditzen zitzaiola, abortuaren biktima zirelako, argia inoiz ere ikusiko ez zuten haurrengan pentsatze hutsa.

1. Zer dio abortuaz Frantzisko Aita Santuak?

Evangelii gaudium aholku-hitz apostolikoan, «Ahultasuna zaindu» titulatzen den atalean, abortuaren arazo dramatikoa aipatzen du Frantzisko Aita Santuak. Atal hori idazkiaren laugarren kapituluan dago kokatua, «Ebanjelizatzearen Alderdi Sozialaz» ari den kapitulu-

an. Atal horretan arreta berezia izatera deitzen digu Frantziskok, pobrezia eta ahultasun era berriei antzemateko, horietan ikusi behar baitugu Jesus oinazetua.

Esanahitsua da, noski, abortua «pobrezia berrien» sailean sartu izana Frantzisko Aita Santuak, halakoei aurre egin behar diegula adieraziz: «aterpe gabeak», drogen mendeko direnak, errefuxiatuak, herri indigenak, bakarrik bizi diren adinekoak, eskale erabiltzen dituzten haurrak, emakume gaizki tratatuak eta baztertuak, etab. Honela dio Frantzisko Aita Santuak berak:

> *«Elizak maitasun bereziz zaindu behar dituen ahul horien artean ditugu jaiotzeko dauden haurrak ere; halakoak dira denetan babesgabe eta errugabeenak, beren giza duintasuna ukatu nahi baitiete, halakoei nahi dutena eginez, bizia kenduz eta hori ezin eragotziko duten legeak bultzatuz. Halakoen bizia defendatzen duelako Eliza nolanahi barregarri utzi nahirik, Elizaren jarrera ideologikoa dela, ilunzale eta kontserbatzailea dela esan ohi dute maiz. Jaiotzeko dagoen bizia defendatzea, ordea, mamiki lotua dago edozein giza eskubide defendatzearekin. Gizakia, edozein egoeratan eta bere garapene-*

ko edozein unetan, sakratua eta bortxaezina dela konbentziturik egotea esan nahi du. Xede da gizakia bere izatean, eta inoiz ere ez beste arazo batzuk konpontzeko medio. Konbentzimendu hori gabe, ez legoke oinarri sendo eta iraunkorrik giza eskubideak defendatzeko; eskubide horiek aldian aldiko ahaltsuen noiz nolako komenientzien esanetara makurturik geldituko lirateke. Adimena bera aski da edozein giza biziaren balio bortxaezina aitortzeko; baina, horretaz gainera, fedearen ikuspegitik begiratzen badiogu, "gizaki bakoitzaren duintasuna bortxatzen duen ekintza orok mendekua eskatzen du Jainkoaren aurrean, eta gizakiaren Sortzailearen aurkako ofentsa da"» (EG 213. zk).

«Ezin da pentsatu gai honetaz Elizak bere jarrera aldatuko duenik, zeren eta gizakiaren balioaz dugun mezuaren barne koherentzia baitago, hain zuzen, jokoan. Zeharo prestua izan nahi nuke gai honetaz. Hau ez da ustezko gure eraberritze edota "modernizatzearen" arabera erabaki daitekeen arazoa. Ez da aurrerakoia giza bizia suntsituz arazoak konpondu nahia. Hala ere, egia da ezer gutxi egin dugula egoera oso larrian diren emakumeei egoki lagun egiteko, halakoei aurkezten baitzaie abortua beren larritasun sakonei irtenbide

bizkortzat, batik bat emakume horien baitan hazten ari den bizia bortxaketaren ondorioa denean edota pobrezia-egoera oso larri bizi dutenean. Nork ez ulertu hain saminak diren egoera horiek?» (EG 214. zk).

2. Abortua den bitartean ez da bakerik izango

Ez da nirea, Kalkutako Ama Teresaren gogoeta baizik. 1979an Bakearen Nobel Saria jasotzera joan zenean, honako hitz hauek esan zituen, han ziren guztiak txunditurik utziz:

«Bakeaz ari gara... Bakearen hondatzailerik handiena gaur egun abortua da, zuzen-zuzeneko gerra baita, amak berak egindako erailketa (...) Gure gurasoek guri hori egin baligute, ez ginatekeen hemen izango. (...) Pertsona asko oso-oso kezkaturik dago Indian nahiz Afrikan elikadura urriagatik, goseagatik edota beste arrazoi batzuengatik hiltzen diren haurrez..., baina milioika haur hiltzen ari da, hala nahita, amaren borondatez! Horixe da gaur egun bakearen hondatzailerik handiena. Izan ere, amak bere umea hil ahal badeza, zer falta da nik zu hil zaitzadan edota zuk ni hil nazazun?

Ez dago deus ere tartean! (...) Saia gaitezen haur bakoitza, jaioa nahiz jaio gabea, maita dezaten. Adopzioaren bidez ari gara gu abortuaren aurka. Milaka bizi salbatua dugu dagoeneko, eta mezuak bidali ditugu klinika eta ospitale guztietara eta polizi bulego guztietara, hau esanez: arren, ez suntsitu umeak, emazkiguzue guri, eta guk zainduko ditugu eta non bizi emango diegu».

Ama Teresaren argudio kartsu honen oroipena egiteak gaurkotasun berezia du euskal gizartearen testuinguruan. Ez gara ohartzen nola «biziaren kulturak» hala «heriotzaren kulturak» beren balioen bat egite harmonikoa dutela, eta koherentzia behar eta eskatzen dutela.

Euskal Herrian bake-prozesua bultzatzen ari diren erakunde publiko eta pribatuen ahaleginak ezin du erabateko koherentzia moralik izan, baldin aldi berean gure gizarteko ahulenekiko sorgor azaltzen badira (ahulenen artean daude sortutako eta jaio gabeko umeak). Zein aginpide moral izan dezakete, adibidez, «Bakerako eta Bizikidetzarako Idazkaritza Orokorra», «Arartekoa», «Bake Konferentziak» eta horrelako erakundeek, babesgabeenek bizitzeko duten eskubidea defendatzeko ezer esango

ez balute, babesgabe horiek direlarik, gainera, gure herriaren etorkizuna? Eraiki ote daiteke bizikidetza baketsua, urtero –Euskadin bertan– lau mila gizaki jaio baino lehen bortxaz hiltzen dutela kontuan hartu gabe?

Badakit bati baino gehiagori ez zaizkiola onargarri irudituko nire hitzak, kontzeptu ezberdinak nahasten ari omen naizelako. Kalkutako Ama Teresak Oslon esandako hitzak ere desegokiak irudituko zaizkie, noski. Ez al zituen hark ere bazterrak nahasi? Nolaz aipatu zuen abortua, behartsuenen aldeko lanagatik saria ematen ari zitzaizkionean? Horrexegatik, ba! Arrazoi horixe bera da!

Frantzisko gure Aita Santuaren hitzetan, «descarte edo baztertzearen kultura» da arazoa. Kultura horren eraginez multinazionalek behartsuak esplotatzen dituzten bezala, erasaten diete abortuaren biktimei ere. Joko honetan denak sartu behar ditugula eta soberan inor ez dagoela konbentzitzen ez garen bitartean, hondar gainean eraikitzen ariko gara. Denen ona denentzat da, bestela ez da denena. Denen ona den horretatik gure gizarteko ahulenak baztertzen baditugu, bakeaz nahiz bizikidetzaz, elkarrizketaz nahiz ongizateaz egin ditzake-

gun planteamenduak oro sendotasunik gabeak izango dira, eta itxurakeria izateko arrisku handia izango dugu.

3. Baztertzearen aurkako sendagaiak: samurtasuna eta itxaropena

Baztertzearen kultura ezin da boluntarismo hutsez gainditu. Ezin zaio berekoia izateari «legez» utzi, legea nork berak emana izanik ere. Kontraste deigarria dago guregan: maitasunez eta maitatzeko sortuak gara, baina maitatzeko zailtasun erro-errotikoa dugu. Nola atera kontraesan dramatiko horretatik? Kristauok badugu galdera horrentzako erantzunik, eta erantzun horrek bere izena du: Jesu Kristo.

«Ez beldur izan samurtasunari!»

La Stampa italiar egunkariak Frantzisko Aita Santuari egin zion elkarrizketan honako dei profetikoa egin zuen Aita Santuak: *«Jainkoak dio: Ez beldur izan samurtasunari».* Norbaitek galdegin dezake zer esan nahi izan ote zuen Frantziskok «samurtasunari beldurrik

ez izate» horrekin? Beldurra eman ote diezaguke samurtasunak? Zakarkeriak, makurkeriak, ezinikusiak bai eman behar ligukeela beldurra. Oso geurea dugun zerbait kenduko diguten susmoa dugunean ere, beldurra sentitu ohi dugu. Oinarritzat hartzen ditugun gezurrezko segurtasunak galtzeko beldurra da samurtasunari beldur izatea: ideologiak, aurreiritziak, ohitura berekoiak, dena dakiguneko ustea, nagusikeria eta horrelakoak galtzeko beldurra, alegia. Hitz batean, samurtasunari beldurra izateak beste hau jartzen du agerian: zaurigarritasunari beldur izatea, amultsutasun edo afektibitateari beldur izatea, maitatzeak dakarren konpromisoari eta sakrifizioari beldur izatea, mozorro edo korazaren azpian dagoen egiazko gizasemea nahiz emakumea ezagutzeari beldur izatea...

Lagun hurkoa besarkatzeko eta halakoari txera izateko ahalmena galtzean –eta ahulenaz eta zaurgarrienaz ari naiz–, gauza oso larria gertatzen ari da gure artean. Zirrara eragin digu Frantzisko Aita Santuak haurrekiko eta gaixoekiko nolako samurtasun-keinuak izan dituen ikusteak. Begien aurrean gelditu zaigu Aita Santua aurpegi desitxuratu batzuk laztan-

tzen eta muin egiten; gehienoi nazka emango zigukeen, Frantziskok aldiz ezkutuko edertasuna ikusi zuela dirudi.

Ezin ditut aipatu gabe utzi, *Evangelii gaudium* aholku-hitzean datozen honako paragrafo labur hauek. Samurtasunak mintzo da Frantzisko Aita Santua; hobeki esan, «samurtasunaren iraultzaz»:

> *«Gaur egungo munduak inposatzen dizkigun jarrera defentsiboak, susmo txarra, etengabeko mesfidantza, inbadituko gaituzten beldurra gainditzera gonbidatzen gaitu beti ideal kristauak. Lagun hurkoagandik ihes egiten saiatzen da asko, pribatutasun erosoan edota bere kuttunen multzo murritzean babesteko, eta uko egiten dio Ebanjelioak duen alderdi sozialari. (...) Ebanjelioak, aldiz, lagun hurkoaren aurpegia aurrez aurre ikustera gonbidatzen gaitu beti, interpelatzen gaituen haren presentzia fisikoa ikustera, haren saminak eta oihuak entzutera, haren alaitasun kutsakorra buruz buru eramatera. (...) Jainkoaren Semeak, giza izatea hartzean, samurtasunaren iraultza egitera gonbidatu gintuen»* (EG 88. zk).
>
> *Jaunaren zaurietatik tarte burutsu bat utziz kristau izateko tentazioa izan ohi dugu batzu-*

etan. Jesusek, ordea, giza miseria uki dezagun nahi du, lagun hurkoaren haragi minberatua uki dezagun. Giza zurrunbiloaren begitik urruti egon ahal izatea ematen diguten babesleku pertsonal nahiz komunitarioei uko egingo diegula espero du Jesusek, eta harremanetan jarriko garela benetan lagun hurkoaren egoera zehatzarekin eta ikusiko dugula samurtasunaren indarra. Hori egitean, bizitza nahasi egingo zaigu era zoragarrian, eta herri izateko esperientzia sutsua biziko dugu, herri bateko kide izatearen esperientzia» (EG 270. zk.).

«Elizaren ebanjelizatze-lanak badu Andre Mariaren estilokoa den zerbait. Izan ere, Mariari begiratzen diogun bakoitzean, samurtasunak eta txerak indar iraultzailea duela sinesten dugu. Mariari begiratzean ikus dezakegu apaltasuna eta samurtasuna ez direla ahulen bertuteak, indartsuenak baizik. Halakoek ez dute inor gaizki tratatu beharrik beren buruak handi ikusteko» (EG 288. zk.).

Aita Santuak samurtasunari ematen dion garrantzia kontuan badugu, garbi ulertuko dugu zergatik sartu duen Frantziskok abortuari buruzko mezua «Ahultasuna zaindu» atalean. Samurtasunak ez du zerikusi handirik erromantizismoarekin. Ahulak maiteen izatea esan

nahi du. Gure sentiberatasunak, super-heroiari, garaileari edota perfektu denari begiratu eta ahula, frustratua, gaixo dagoena edota adimen urrikoa baztertzen duenean, erne egoteko argi gorria piztu behar litzaiguke, gauza larri eta kaltegarria gertatzen ari litzaigukeelako.

«Ez diezagutela itxaropena ostu!»

Frantzisko Aita Santuak *Evangelii gaudium* idazkian duen beste esaera nabarmen bat honako hau da: *«Ez diezagutela itxaropena ostu!»* (EG 86. zk.). Gure itxaropenaren iturri sakona Kristo piztua eta aintzatsua dela ikustera bultzatzen gaitu Frantziskok hitz horiekin, eta bizitza honetan betetzeko utzi digun misioa aurrera eramateko indarra izango dugula dio.

Esan dezagun argi: gure gizarteak nozitzen duen gaitza, sentiberatasunaren gogortzea ez ezik (horrek samurtasunaren antidotoa eskatzen du), horren atzean ezkutatzen den beste gaitz handiago bat da: itxaropenik eza. Eta ez da komeni itxurakeriak engaina gaitzan uztea, itxaropenik eza era askotara azaltzen baita: estoizismo dotorea (itxaropenik eza harropuzkeria eta bere buruaz harro egotea bihurtuz),

etsipen mingotsa, norbere buruaz beste egitera daraman etsipen gaizto eta itsua, etab.

Mendebaldeko gure kulturaren ezaugarrietako bat itxaropenik ezaren «matxarda» dela esan du norbaitek. Hala da. Joan Paulo II.ak zioen heriotzaren kulturak edota Frantzisko Aita Santuak dioen «baztertzearen kulturak» matxardarena egiten du, ertz batean eutanasia duelarik eta bestean abortua. Bi ertzen artean, gero eta suizidio gehiago gertatzen ari da. Gogoratu besterik ez dago nolako datuak eman zituen INEk 2012an: aurreko urtearekin alderaturik, % 11,2 suizidio gehiago izan zen.

Hau zioen Castellanik, pentsalari argentinar ospetsu batek: «Bizitza honek ezertarako balio ez dueneko sentimendu sakona da etsipen gaiztoa, bizitzeak ez duela merezi eta dena iruzur hutsa dela. Sentimendu honek berekin du beste bizitza bat ez dagoeneko konbentzimendua». Mendebaldeko ateak gogor jotzen dituen galdera da, bizitzearen zentzuari buruzko galdera; horren aurrean, santuen jakinduria dugu oinarri: *«Nork bere burua ez ezagutzeak harrokeria dakar; baina Jainkoa ez ezagutzeak etsipen gaiztoa dakar»* (San Bernardo).

Gure itxaropena oinarritzen duen iragarpen handia Jainkoaren maitasuna da. Bizi betera deitzen gaitu Jainkoak, betieran bizitzera. Elizak oihukatzen duen albiste handia hau da: Jainkoa badela, bai; baina gu ere izan, Jainkoarentzat garela, bere seme-alaba ordezkaezinak gaituela.

Mendebaldeko kulturaren arazorik larriena bizitzaren zentzuari buruzkoa da; beste era batera esanda, honako dilema hau: itxaropena eta itxaropenik eza. Ezin dugu bizia eman, bizia zer den ez badakigu. Norbaitek zioen: *«Zerumugarik ez dagoenean, gauzak ez dira ezta gertutik ere ikusten»*. Izan ere, maitasunetik gatozela eta, sufrimendua eta heriotza gainditurik, maitasunera goazela ikustean, orduan eman dezakegu guk dugun hoberena, eskuzabalki eta alaiki.

4. Egia morala abortuaz. Irizpideak argituz

Baztertzearen kulturaren aurkako sendagaitzat samurtasuna eta itxaropena hartzeaz gainera, abortuari buruzko egia moralaz dagoen eztabaidari lotu behar gatzaizkio. Erlatibismoak eta generoari buruzko ideologiak bultza-

turik, asko zabaldu da abortuaren aldeko argudio-multzoa, eta honek jende asko nahas dezake bere sotilkeriarekin eta, orobat, bizia defendatzeko apologetika ongi formulatua falta duelako.

Gaur egungo gizon-emakumeen zauri moral handiak gehienbat afektiboak dira; baina, horrekin batera, esan beharra dago adimena eta zentzu komuna ilundu zaizkiola. Badirudi utilitarismoak eta praktikotasunak baztertu egin duela idealismo oro, baita egia ezagutzeak, batez ere egia morala ezagutzeak, dakarren konfiantza bera ere.

Hori dela eta, gogoeta kritiko batzuk egin nahi ditugu, 2013ko abenduaren 20an aurkeztu zuten *«Sortutako Bizia eta Haurdunaldian den Emakumearen Eskubideak Babesteko Lege-egitasmo Organikoa»* («*Anteproyecto de Ley Orgánica para la Protección de la Vida del Concebido y de los Derechos de la Mujer Embarazada*») delakoaren aurrean alderdi politikoek eta beste eragile sozial batzuek izan zituzten erreakzioei erantzunez. Abortua zuritzeko eta galdatzeko gehien erabiltzen diren argudio abortu zaleei ere erantzun nahi diegu.

Horrela, eztabaida horretan kontzeptuak argitzeko geure ahalegina egin nahi genuke.

1. *«Ez dago behar adinbateko kontsentsurik eraberritze hau egiteko»*

Aurreko legeak onartzeko ere ez zen kontsentsurik izan ez parlamentuan (ezta gizartean ere). Baina beste gauza bat esan nahi dugu: gure iritziz, bizitzeko eskubidea ez dator kontsentsu politikotik. Politikaren eta zuzenbidearen aurrekoa da bizitzeko eskubidea. Giza bizi orok berea duen eskubidea zaintzeko bideak jarri behar ditu gizarteak; baina inola ere ez dagokio eskubide hori oinarritzea eta are gutxiago zalantzan jartzea.

Heldu datekeen gizartean ez dago dena politikaren esku (sentiberatasun politiko ezberdinen arteko orekatzat harturik politika). Gure gizartearen akatsetako bat hau da: politika –oso beharrezkoa izanik ere– bilakatu dela giza bizitzaren printzipio gidari bakar. Ona eta txarra zer den erabaki dezakeela uste du; giza izatea eta familiaren izatea zer den erabaki dezakeela uste du; giza biziaren hasiera eta bukaera erabaki dezakeela uste du; irakas-

kuntza-sistema-ren erantzule bakarra izan daitekeela uste du, etab.

2. *«Atzerakada erreakzionarioa da lege-egitasmo hau; jarrera politiko kontserbatzaileei amore ematea da»*

Abortuari buruzko eztabaidak alde batera utzi behar ditu klixe ideologikoak, behar bezalako objektibotasunez eta askatasunez bereizteko oztopo baitira. Berrikusi beharra dago «abortua = ezkerra eta biziaren aldekoa = eskuina» bikote estereotipikoa, gizadiak aurrera egin dezan sentiberatasun etikoan.

Ikusi dugu nazioartean zenbait pertsonaia jarrera horretatik aldendu dela. Rafael Vicente Correak, Ekuadorko presidenteak, buruzagi ezkerra izanik ere, biziaren aldeko jarrera hartu du sutsuki, eta dimitituko lukeela esan du, baldin Parlamentuak abortua libre egiteko legea ontzat emango balu. (Ikus daiteke honako bideo honetan, estereotipo faltsu horiek Correak nola arbuiatzen dituen: https://www.youtube.com/watch?v=KtA6VUQD4Js). Marine Le Pen-ek ere, gaur egun eskuin muturreko alderdia den Fronte Nazio-

naleko presidenteak, esana du berak ez lukeela onartuko Espainian proposatu duten abortulegearen murrizketa.

Nahiago genuke, espainiar Estatuko panorama politikoan, bikote estereotipiko itxuragabe horren aurrean (« abortua = ezkerra eta biziaren aldekoa = eskuina») pentsamendu kritikoa politikari gehiagok agertuko balu. Hala ere, nabarmendu beharra dago, pertsonaia publiko batzuek beren jarrera adierazi dutela. Hala egin du Francisco Vázquez-ek, A Coruñako alkate ohi sozialistak. Gauza bera egin du Mercedes Aroz-ek ere, PSOE-PSCko senatari ohiak eta orain, ekintzaile politiko izateari utzi ondoren, *«Foro Cultura21 - Nuevo Feminismo y Derechos Humanos»* delako elkartearen presidente denak.

Kontua ez da estereotipo hori atzekoz aurrera jartzea ere (abortua = eskuina eta biziaren aldekoa = ezkerra). Giza bizia politika baino lehenagoko balioa dela ulertzea da kontua eta, ondorioz, sentiberatasun politiko oro jaio gabearen bizia onartzera eta zaintzera deitua dagoela ulertzea.

3. *«Gai honetan boto-askatasuna eman behar liekete alderdi politikoek beren parlamentarioei»*

Asmo onez eta beren kontzientziarekiko leial izanez jokatu nahi omen duten politikari batzuek horixe eskatu dute. Baina, gure ustez, ez da onargarria. Izan ere, ezin zaigu ahaztu gure sistema parlamentarioan ez dagoela zerrenda irekiak dituen hauteskunde sistema. Horregatik, alderdi politiko jakin baten hauteskunde-zerrendari botoa eman dioten hiritarrek eskubidea dute jakiteko, nola administratuko duten halako gai garrantzitsuan beren botoa.

Adibide bat: Pentsa ote daiteke ezkerreko alderdi batek boto-askatasuna emango liekeela bere parlamentarioei, langilea libreki kaleratzeko lege-egitasmoa baten aurrean? Jaio gabearen bizia babestea jokoan jartzen duen arazo larriaren aurrean alderdi politiko batek parte ez hartzeak agerian jarriko luke sorgortasunik eta axolagabekeriarik handiena.

4. *«Abortu-lege murriztailea emateak Europako beste nazio batzuetara alde egi-*

tea ekar lezake. Ez da komeni Europan gehienek duten markotik urrutiratzea»

Argudio hau, hala ere, ez da gai guztietara hedatzen. Ikusgarria da. Adibidez, norbaitek bere dirua Europako paradisu fiskaletako batean ezarri nahi izango balu, pertsegitu egingo lukete eta kondenatu, denen ongiaren aurkako jarrera ez-solidarioa izango lukeelako. Ez dirudi, horren aurrean, inork honako hau pentsatzen duenik: Europan paradisu fiskalak izateak dirua ateratzea ekarriko lukeenez, ken dezagun norberaren lurraldean presio fiskala... Hau bai ikusgarria: Giza biziak berak baino diruak balio handiagoa duela dirudi!

Arrazoibide horrek, guraso gehienek beren seme-alabei bezala, nahi duena egiten uzten ez dion aitari semeak edota alabak egindako kexuak duen balio moral bera izango luke: Denek egiten dute! Ni naiz koadrilan porroak erretzen uzten ez dioten bakarra!

5. ***«Zenbait ekintza arautzeko eskubidea dute Estatuek, zeren, etika aldetik eztabaidagarri izanik ere, legez bideratu be-***

harra baitute, ahalik eta gaitzik txikiena izateko»

Argudio moral hau beste gai batzuetan ulergarri izanik ere (adibidez, alkoholaren salmenta eta kontsumoa arautzea, zorizko jokoak, ekintza kaltegarri batzuen arautzea, etab.), ez da inola ere onargarria arautu daitezkeen gaitz txikien zerrendan abortua sartzea. Gaitz txikia? Gizaki errugabe bati bizia kentzea gaitz txikia baldin bada, zeri esango genioke gaitz handia? Lehergai atomikoaren eztandaz aparte, beste ezer askori ez!

Hiritar guztien eta, bereziki, ahulenen bizia bermatzea da Estatuaren lehendabiziko betebeharra. Gainerakoa, basoko legea izango litzateke edota indartsuenaren legea.

6. ***«Abortuaren legea eraberritzeko egitasmo horren atzean Eliza Katolikoaren presioa dago, ez baitu bereganatu laikotasun printzipioa eta bere morala ezarri nahi dio gizarte osoari»***

Moral katolikoak abortua ez du errefusatzen Elizak ustezko bekatu-zerrenda batean

sartu duelako. Bestela baizik, gizakiarentzat gaitz objektiboa delako du bekatutzat hartzen Elizak abortua. Hau zioen Aquinoko San Tomasek: *«Gizakia hondatzen duena iraingarri da Jainkoarentzat»*. Beraz, moral erlijiosoak eta etika zibilak (objektiboki ondo oinarrituak) bat etorri behar dute, nahitaez, «*nasciturus*», hau da, jaio gabekoaren bizia babestu behar horretan.

Ikustekoa da, bestalde, une honetan nolako argia egiten dion Errebelazio kristauak giza adimenari, «lege naturala» zein den jakiteko eta betetzeko. Historiak aitortuko du, nolako zerbitzu eskerga egindion eta egingo dion ere Errebelazio kristauak gizadiaren gogoeta etikoari.

7. *«Hobe luke Elizak pobrezian bizi diren haurren duintasunaren alde borrokatzea, oraindik etorri ez direnengatik itsutzea baino. Hobe da mundu honetara ez etortzea, bertan alferrik sufritzea baino»*

Munduan dagoen miseria ez da kentzen mundu honetara etor daitezkeen behartsuei

oztopoak jarriz, baizik eta pobreziaren aurka borroka eginez. Gauza makurra eta gaitzesgarria da, horregatik, «gupida» aipatzea, ahulenen suntsiketa zuritzeko. Egia esateko, herrialde pobreetako behartsu horiek bizi-poz handiagoa eta alaiagoa erakusten dute, Mendebalde oparo honetan ikus daitekeena baino.

Bestalde, ezin izango dugu inoiz esan, egin beharreko guztia egin dugula arriskuan dauden emakume haurdunei lagun egiteko eta halakoak babesteko. Denek dakite nolako lansoziala egiten ari den Eliza Caritasen bidez eta beste hainbat karisma erlijiosoren bidez. Baina askoz gehiago saiatu beharra dago, kasu zailetan ama izatea babesteko baliabide bila.

Honenbestez, zantzu edo aieru aski bada salatzeko nolako itxurakeria den abortua zuritzeko gezurrezko gupida aipatzea. Adibidez, parlamentu autonomo gehienetan aurkeztu dute «Red Madre» deritzan Lagegintzarako Herri Ekimena (https://www.ucv.es/redmadre), bere haurdunaldia aurrera eraman nahi duen emakume haurdunarentzat babes-neurriak eskatuz. Abortua onartzen duten alderdi politikoek kontra bozkatu dute.

8. *«“Gallardón” lege-egitasmoa bat dator “pro-vida” mugimendukoen eta katolikoen proposamenarekin»*

«Pro-vida», hau da, biziaren aldeko mugimendukoen jarrera (moral kristauarena bezala) ezin da izan abortuaren aurrean giza bizia erabat eta baldintza gabe defendatzea baizik. Ezin du beste legerik onartu. Bizia sakratua da eta ezin da salbuespenik egin. Esate baterako, onar al daiteke moralki, sortu denaren bizia suntsitzea bortxaketaren ondorioz gertatu den haurdunaldian? Bortxatzaileari heriotza-zigorra ezartzea onartzen ez dugularik, onartu egin behar ote dugu errugabeenari heriotza-zigorra ematea? Kristau-jarrerarekin bat letorkeen lege zuzen bakarra «zero abortu» defendatzen duena da. Gallardón-ek prestatu duen lege-egitasmoak duen gauzarik hoberena titulua da: *«Sortutako Bizia eta Haurdunaldian den Emakumearen Eskubideak Babesteko Lege-egitasmo Organikoa»* («*Anteproyecto de Ley Orgánica para la Protección de la Vida del Concebido y de los Derechos de la Mujer Embarazada*»). Edukia, ordea, ez da

zuzena, lege bidegabea baita, giza bizia baldintza gabe babesten ez duelako.

Lege-egitasmo horretan arriskutsuenetakoa den alderdietako bat honako hau da: abortua onartzeko baldintza, «amaren kalte psikologikoa» kontuan izaten jarraitzen duela. Denok dakigu baldintza horrek ahalbideratu dituela legez Espainian egin diren abortu gehiengehienak, aurreko legea, «hiru baldintzen legea», indarrean egon zen bitartean. Oraingo lege-egitasmo honek, ustezko arrisku psikologikoa balioztatzeko erresalbuak –bi sendagile independenteren azterketa, adibidez– hartu behar direla eransteak ez du eragozten praktikan erresalbu horiek aise saihestu edo itzuri ahal izatea. Tamalez, esperientziak erakusten digu profesional ez gutxiren kontzientzia ustel dezakeela diruak.

Horregatik, doktrina moral katolikoaren arabera, parlamentarioak ezin dio baiezko botoa eman lege-egitasmo honi, non eta ez diren gertatzen *Evangelium vitae* entziklikak 73. zenbakian adierazten dituen baldintzak:

> *«Kontzientziako arazo zehatza gerta daiteke, parlamentarioaren botoa erabakigarria izango*

balitz lege murriztaile bat bideratzeko, hau da, abortu baimenduen kopurua murrizteko, aukeran beste lege permisiboago bat indarrean balego edota botazio-fasean balego. Ez dira hain bakanak halako kasuak. Izan ere, badira munduan lurralde batzuk abortuaren aldeko legeak sartzearen aldeko kanpainak egiten jarraitzen dutenak, askotan nazioarteko erakunde indartsu zenaitek bultzatuak diren kanpainak; beste nazio batzuetan, ordea, lege permisiboen esperientzia garratza izan duten nazioetan gehienbat arazoa berrikusteko zantzuak azaltzen hasiak dira. Aipatu dugun kasuan, abortuaren aldeko lege bat ekiditea edota erabat indargabetzea ezinezkoa gertatzen denean, parlamentarioak –abortuaren aurka duen jarrera pertsonala denek argi ikus dezaketelarik– zilegi du baietza ematea halako lege horren kalteak murrizteko diren proposamenei eta, horrela, kulturaren eta moral publikoaren alorrean izan ditzakeen ondorio ezkorrak txikiago eginez. Beraz, horrela jokatuz, ez du kolaboratzen zilegi ez den eran zuzengabeko legearekin; bestela baizik, halako legearen alderdi bidegabeak mugatzeko zilegi den ahalegin beharrezkoa egiten du».

Hots, abortuaren arazo honetan murriztaile den lege-egitasmo honi parlamentario katoliko

batek baietza ematea justifikatua egon daiteke, baldin botazio unean ezin bada giza bizia erabat defendatuko duen gehiengo parlamentariorik izan. Gainera, abortua baldintza gabe errefusatzen duela adierazi behar izan du publikoki parlamentario horrek eta, orobat, prest dagoela abortua baimentzen duen legedia erabat indargabetu dezaten lan egiten jarraitzeko.

9. *«Emakumearen askapenarekin zerikusia du abortuak»*

Inkesta soziologikoak aspaldidanik ari dira erakusten, amaren sabelean dagoen biziaren balioarekiko, gizasemea ez dela emakumea bezain sentibera. Ikerketa soziologiko horiek berek adierazten dute abortu askoren atzean gizasemearen eragina «baita xantaia ere». Muturreko feminismoak, praktikan, sexu-eredu matxista ezartzen dio emakumeari.

Bestalde, ezin zaigu ahaztu munduko biztanleriak nozitzen duen desoreka dramatikoa. Lancet mediku-aldizkari britainiarrak 2007an egindako kalkuluaren arabera, Asian bakarrik, ehun milioi emakume «desagertu» da, abortua erabili delako mutiko jaiotzen zena aukeratze-

ko. Ba al du zentzurik feminismoak abortu libre bultzatzeak?

Hainbestetan oihukatzen duten *«Nosotras parimos, nosotras decidimos»* goiburuak (Twitter sarean honako hashtag hau duelarik: #MiBomboEsMio), ez du aintzat haRtzen jaiotzeko dagoenak bere izatea duela, eta, gainera, emakumearentzat berarentzat suntsitzaile dela.

Bereziki aipatzekoa da, nolako kalte psikologikoa nozitzen duen abortatu zuen emakume askok. Horren testigu da Eliza, hala ikusten baitu adiskidetze sakramentuan eta lagun egite pertsonalean, eta esperientzia ere jaso du «Proyecto Raquel» (http://www.proyecto-raquel.com/) deritzan elkartean eta horrelako elkarteetan. Halakoek harrera egiten diete, abortatu ondoren beren buruari barkatu ezinean dauden emakumeei eta nozitzen duten trauma ezin gainditu duten emakumeei. Izan ere, ama izateko sena oso berea du emakumeak eta inozoa izango litzateke sen hori, ondoriorik gabe, alde batera utz daitekeela uste izatea.

10. *«Ez da inor abortatzera behartzen, baina ezin da emakumea ama izatera behartu ere»*

Aukeratzeko askatasunera era horretan jotzeak abortua bere egiazko objektibotasunean ikusteko zailtasuna baizik ez du adierazten. Jakina da, noski, ez dela abortua proposatzen egin beharrekoa dela esanez (ezin da ahaztu, hala ere, emakume askok eta askok beren bikotearen edota familiaren eta nagusien presioz eta eraginez abortatzen duela). Ahaztu egiten zaigu, ordea, abortu orok giza bizia suntsitzen duela, eta halako bizidunari ez zaiola eman aukerarik bizitzeko ala hiltzeko.

Ama izatea ez da erditze-unean hasten, umekia sortzean baizik. Ama izatera behartu ezin dela esatean, ahaztu egiten zaie badela ama, haurdunaldia hasi duen unetik. Une horretatik aitzina, aukera bakarra du: bizirik dagoen haur baten ama izatea ala hila dagoen haur baten ama izatea.

Arazo nagusia, beraz, honako hau da: abortua «eskubidetzat» hartu ote daitekeen. Izan ote daiteke eskubiderik, sortua den eta jaiotzeko dagoen gizakiaren bizia suntsitzeko?

Izan ote daiteke eskubide inor hil ahal izatea? Bizitzeko eskubidea bai, baina hilotzeko eskubiderik ez dagoela dio argi eta garbi arrazoimen zuzenak.

«Abortatzeko eskubidea» aipatzean, beste hau dago ezkutuan: «gogo edo desioaren ideologia», naturaren logika baztertuz. Horren arabera, ez litzateke haurra izango gurasoak izateko eskubidea duena, baizik eta pertsona helduak izango luke semea/alaba izateko eskubide osoa (edota semea/alaba suntsitzeko eskubidea, desiratua ez balitz). Beste era batera esanda, «kartara ama izatea» eskatzen da.

Ahaztu egin zaigu, noski, *Dignitatis personae* Irakaspenak, 16. zk.an, oroitarazten digun printzipioa:

> *«Elizak aitortzen du, zilegi dela semea nahiz alaba desiratzea, eta ulertzen du nolako sufrimendua izan dezaketen gurasoek ugalkortasunik ez dutenean. Hala ere, desio hori ezin da jarri giza biziak duen duintasunaren gainetik, bizi hori erabat menderatu nahi izateraino. Semea nahiz alaba desiratzeak ez du zuritzen halakoa "ekoiztea", eta sortua den semea nahiz alaba ez desiratzeak ere ezin du zuritu halakoa baztertzea nahiz suntsitzea».*

Esan gabe doa «desioaren ideologia» ez dela abortura mugatzen, baizik eta genero ideologiaren ardatz nagusia dela. Horren adibide izan daiteke bikote homosexualek seme-alabak adoptatzea edota norberaren sexua aukeratu ahal izatea (nork berak izango luke gizaseme ala emakume izateko eskubidea!). Errealitatea norberaren olde edo desioaren arabera birdiseinatzea izango litzateke hori... «Nahimena» «desio» hutsera murrizten duen ideologia okerrarekin hasitako zurubiaren azken mailetan gaudelakoan nago.

Azkenik, garrantzia duen xehetasun bat aipatu behar dugu: aukera egiteko askatasuna aipatzen den lekuan, zailtasunak eta oztopoak ipintzen dizkio gaur egun Espainian indarrean dagoen legeak osasun-langileek kontzientzi eragozpenak izateko eta egikaritzeko eskubideari. Abortuaren aldeko jarrera zinez askatasun-printzipioaren defendatzaile bada, ezin da ulertu zergatik ez duen errespetatzen osasun-langileek abortuaren aurrean objekzioa izateko eskubidea.

11. *«Norberaren kontzientzia da bere ekintzen azken epailea, baita abortatzearena ere. Kontzientziaz hartutako erabakiak errespetatzea eskatzen du gizakiaren duintasunak»*

Kontzientziara jotzea egon daiteke on moral objektiboaren aurka; orduan, kontzientziaren kontzeptuaren beraren okertze larria gertatzen da. 1993an Joan Paulo II.ak argitaratu zuen *Veritatis splendor* entziklikak argi handia egin zuen gai honetan. Adimenaren egintza da kontzientzia, on unibertsala kasu zehatz batera aplikatuz. Norberaren kontzientzia, ordea, ezin da inola ere norberaren baliabidetzat hartu, ona eta txarra zer den erabakitzeko irizpide era autonomoan erabakitzeko, gero nork bere iritzira jardun ahal izateko. Hona zer dioen entziklikak:

> *«Norberaren kontzientziari eman nahi diote epai morala emateko instantzia goren izateko ahalmena, ona eta txarra zer den era kategoriko eta hutsezinean erabaki ahal bailezan. Nork bere kontzientziari jarraitu behar diola esateaz gainera, bidegabeki esaten da epai morala zuzena dela kontzientziatik datorrelako,*

besterik gabe. Horrela pentsatuz, ordea, zinezkotasuna, benetakotasuna, "norbere buruarekin bat etortzea" arrazoitzat harturik, ezerezean uzten da egia bilatu beharra. Era horretan, epai moralaren kontzepzio zeharo subjektibistara iristen da» (VS 32. zk.).

Ezin zaigu ahaztu *«egia dela kontzientzia neurtzeko irizpidea, egia ezagutzeko gizakiak duen gaitasuna baizik ez baita kontzientzia»* (Benedikto XVI.a). Arazo hau sakon aztertu zuen Newman dohatsuak, kontzientziaren eta agintearen (hots, egia moral objektiboaren) arteko aurkakotasun dialektikoa faltsua dela azpimarratuz. Honela zioen: *«Legezko aginteari zor zaion obedientzia saihesteko kontzientziaren eskubideak aipatzea tranpa besterik ez da»*.

Gure kontzientzia ongi formatzeko betebehar morala dugu, beraz, ez dezagun kontzientziaren esana norberaren gogo nahiz komenientziarekin nahasi. Ahaztu ezinekoak dira Joan Paulo II.ak izandako elkarketa gogoangarri batean esanak: *«Gazteok, ez itoarazi zeuen kontzientzia»*.

12. *«Ezkurra ez da haritza. Arrautza ez da oiloa. Umekia ez da giza pertsona»*

Internet sarean oso hedatua dagoen argudio honek agerian jarri besterik ez du egiten, abortuaren aldeko planteamenduen oinarrizko eta abiaputunko akatsa honako hau dela: giza biziaren duintasuna behar bezainbat ez balioztatzea (izatez askoz goragokoa baita landareen edota animalien bizia baino). Izan ere, oiloak gizakiaren duintasun bera balu, moralgabea izango litzateke arrautzopila egitea, zeren moralgabea baita giza enbrioiak beraren onerako ez den beste zerbaitetarako erabiltzea. Ikusgarria da noraino nahasten eta korapilatzen dituen kontzeptuak abortuaren aldeko argudioak!

Agian aitortu beharrean gara, ez dela kontzeptuen manipulazio dialektiko hutsa, baizik errealitatea ikusteko krisialdi sakona. Adibidez, harrigarria da, noski, Europako toki gehienetan arrano-arrautzak lege-babes askoz handiagoa izatea, giza enbrioiak baino.

13. *«Enbrioi izan aurreko epealdian, lehendabiziko hamalau egunetan, ez*

da artean indibiduaziorik. Nola esan hori giza pertsona dela, ez badakigu oraindik gizaki bakarra izango den ala bikiak izango diren ere»

Aurren aurrenik esan beharra dago «enbrioi aurrekoa» hitza ez dela enbriologiari buruzko ikerketan sortua, baizik Britainia Handiko Warnok Batzordeak asmatua, hamalau egun baino gutxiago zuten enbrioiak erabili ahal izateko asmoz.

Bestalde, enbrioia noiz bikoiztuko den enbrioi bikia eratuz ala bakarra garatuko den jakiteko ahalmen zientifikorik gaur egun ez izateak ez du esan nahi giza bizirik ez dagoela enbrioian. Hau da, zientziaz ezin da baztertu, biki izateko ahalbidea sortze-une berean erabakia egon daitekeela.

Dena dela, enbrioian giza pertsona bat ala bi daudeneko zalantzak ez du esan nahi bat ere ez dagoenik, baizik ez dakigula zenbat dagoen. Arrazoitze funsgabea da, beraz, hori, eta asmo honekin egina, inondik ere: zalantzan jartzeko giza bizia sortze-une berean gertatzen ote den, zientziak egiaztatzen duen bezala.

14. «***Eliza Katolikoaren Irakaspenak ez du argitu zein unetan isurtzen duen Jainkoak arima giza gorputzean. Aquinoko San Tomasek XIII. mendean zioenez, haurdunaldiko 40. eta 90. egun bitartean isurtzen da arima»***

Kontuan izan behar da San Tomasen testuingurua. XIII. mendean ez zegoen, noski, enbriologiarik. San Tomasek ez zekien giza genoma zenik ere, ezta gizakiaren kode genetikoa sortze-une beretik zeharo erabakia dagoela ere. Jauzi kualitatiboa enbrioia sortze-unean gertatzen da. Handik aurrera, kuantitatiboa da gehienbat enbrioiaren eta umekiaren garapena. San Tomasen kontzeptu biologikoak urruti zeuden ezagutza biogenetiko horietatik, Hipokratesen eta Aristotelesen irakaspenetan oinarritzen baitzen.

Garbi ikusten da, beraz, San Tomasen iritzian (arimaren isurtzea sortze-unean ez, baizik haurdunaldian zehar gertatzen zela uste baitzuen), zerikusi handia zuela enbrioiaren konplexutasun biologikoaren berri ez jakiteak. Zerikusia izan zuen, orobat, hilemorfismoaz (materia-formaz) zuen kontzepzio metafisiko-

ak. Honen arabera, «materiari», gorputzari alegia, elkartzen zaion «forma» da arima. Pentsamendu hilemorfikoak zioenez, materiak nahikoa garatua egon behar zuen forma onartzeko (horregatik zioen Aristotelesek haurdunaldiko 40. eta 90. egun bitartean elkartzen zaiola gorputzari arima).

Azalpen horien ondoren, esan beharra dago, Elizak ez duela era dogmatikoan adierazi zein unetan isurtzen den arima gorputzean, ez; baina garbi asko oroitarazi digu giza enbrioi oro giza pertsonari dagokion duintasunez tratatu beharrekoa dela. Hona zer dioen *Evangelium vitae* entziklikak, 60. zk.an:

> *«Datu esperimentalak behatzetik ezin da atera arima espirituala badela gorputzean; hala ere, giza enbrioiaz zientziak ateratako konklusioek adierazpen ederra ematen dute, giza bizia sortze-une beretik pertsonaren presentzia badela ikusteko. Nolaz gizabanako bat daiteke giza pertsona ez izan?*
>
> *Bestalde, betebehar moralaren ikuspegitik, hain da hau garrantzitsua, ezen pertsona gertatzeko probabilitate hutsa aski izango bailitzateke, giza enbrioia suntsitzeko edozein ekintza erabat debekatzeko. Horrexegatik, eztabaida zienti-*

fikoaz haratago eta Elizaren Irakaspena espresuki lotu ez den baieztapen filosofikoez haratago, Elizak beti irakatsi izan du eta irakasten du, giza sorkuntzaren fruituak, izatearen lehen unetik, bermatua izan behar duela baldintzarik gabeko begirunea, giza izateari bere osoan eta gorputzaren batasunean zor zaion begirunea: "Sortze-une beretik behar da gizakia errespetatu eta pertsonatzat tratatu eta, horregatik, pertsonari dagozkion eskubideak aitortu behar zaizkio une horretatik bertatik, batez ere gizaki errugabe orok duen bizitzeko eskubide bortxaezina"».

Adibide bat jarri nahi nuke, giza enbrioiari pertsonaren duintasuna aitortzeko dagoen betebehar moralaz esan duguna argitzeko: Egin dezagun ehiztari batek, eskopeta eskuetan, zalantza duela sastraka atzean sumatzen diren mugimenduak basurdearenak ala ehiztari lagunarenak diren. Eta arrazoizko zalantza izanik ere, sastrakara tiro egitea erabaki eta laguna hiltzen duela. Arrazoi osoz bizkarreratuko diote hilketa arduragabekeria kriminalarengatik.

Kontuan izan behar da Elizaren Irakaspenak ez duela gai filosofikoetan definizio dogmatikorik egiten (arima isurtzeko unea gai

filosofikoa da). Hala ere, Elizak garbi dio *«gizaki ororen alderdi ontologikoaren eta balio berariazkoaren artean barne lotura dagoela»* (*Dignitatis humanae* Irakaspena, 2008). Elizaren Irakaspenak hau dio:

> *«Obulua ernaltze-une berean bizi berria hasten da, ez aitarena ez amarena, gizaki berriarena baizik, bere ahalmenez garatuko den bizia. Ez da inoiz gizaki izango, une horretatik ez bada. (...) Gaur egungo genetikak hala baiesten du. Izaki bizi hori izango denaren programa lehen unetik finkatua dagoela: gizakia, bere berezitasunak ongi erabakiak dituen norbanakoa. Ernaltzean ekiten dio bere ibilbideari giza biziak, nahiz eta giza bizi horrek denbora behar izaten duen bere ahalmenak garatu eta jardun ahal izateko»* («Eragindako Abortuaz Adierazpena», 1974).

Beste adibide bat ere jarri nahi nuke: Katean fabrikatutako autoak auto izatera zein unetan iristen diren erabakitzea ezinezkoa da, motorra txasisean sartzen dutenean ala lau gurpilak jartzen dizkiotenean. Biziaren hasieraz, ordea, ez da horrela gertatzen. Hastapenetik gizakia gizaki da eta berez garatu baizik

ez du egiten, gizaki izatera iristeko kanpotik beste osagairik gehitu beharrik izan gabe.

Auto baten fabrikazioa burutzeko kanpotiko osagai asko gehitu behar izaten zaio. Giza biziak, aldiz, ez du deus ere erantsi beharrik, bizitzen eta berez garatzen uztea besterik ez du behar. Gizakia ez da fabrikatzen –horregatik ez da bere izatera iristen garapenak uneren batean, autoa bezala–; gizakia garatu egiten da sortze-une beretik.

5. Epilogoa. Amaierako zazpi gogoeta

1. *Fedeak biziaren duintasuna agertzen digu*

Fedeak apaltasunaren jakinduria eskaintzen digu, sorkariak garela ulertzeko, eta jainko garela uste izatearen tentazioari ihes egiteko. Sortuak izan gara, eta kristauok biziaren balio sakratua aitortzen dugu. Jainkoa bakarrik da biziaren sortzaile, eta, beraz, bera bakarrik da biziaren jabe absolutua. Horregatik, Eliza Katolikoaren Kristau Ikasbideak 2270. zk.an dioen bezala:

«*Pertsonaren biziari errespetua zor zaio eta babestu egin behar da erabat, sortzearen unetik beretik. Existitzen deneko lehen unetik, gizakiari aitortu egin behar zaizkio bere pertsona-eskubideak, eta horien artean dago izaki errugabe orok duen biziaren eskubide bortxaezina*».

Baina bada oraindik gehiago. Fedea ez da kreazioa baieztatze hutsera mugatzen. Horrez gainera, Jainkoak mundua sortzeko zein arrazoi izan zuen ere agertzen digu, eta bere «antzirudira» egindako gizakia jarri zuela kreazioaren gailurtzat.

Hain zuzen, Jainkoaren guganako maitasuna izan da gu sortzearen arrazoi bakarra. Betidanik maite izan gaitu Jainkoak. Hori da gure existentziaren arrazoia! Beste era batera esanda, biziaren balioa ulertzeko azken arrazoia ez da Jainko kreatzailearen existentzia aitortzea; baizik eta gu Jainkoarentzat existitzen garela, hau da, Jainkoak maite gaituela, sinestea.

2. *Guztiona den lurzoru etikoa*

Hala ere, bizia bortxaezina delako printzipio morala ez da fededunei bakarrik dagokie-

na; Izan ere, biziaren sortzailea den Jainkoagan sinesten ez dutenek ere aitortu beharra daukate, gutako inork ez duela bere bizia aukeratu; bizia «emana» izan zaigu besterik gabe. Gezurra badirudi ere, gaur egun abortuaren eskubidea aldarrikatzen dutenak jaio egin ziren! Horien amek abortua egin izan balute, horiek orain ezin izango zuketen beren ahotsez oihukatu...

Horregatik, biziaren eskubidea ez da balio erlijioso hutsa, bizikidetzarako oinarrizko balioa duen eskubidea baizik; guztiona den eta denek aitortzen duten lurzoru etikoa da, zuzenbidezko gizartea eraikitzeko beharrezko dena. Horregatik, Eliza Katolikoaren Kristau Ikasbideak 2273. zk.an dioen bezala: «*Gizaki errugabe orok duen biziaren eskubide bortxaezina oinarrizko osagaia da gizarte zibila eraikitzeko eta beronen legedia eratzeko*».

3. *Arrazoimenaren itzalaldia*

Giza arrazoimena gai da lege naturaletik eratorriak diren eskakizun moralak ezagutzeko. Baina ikusten dugu, pentsaera filosofiko, etiko eta antropologikoaren krisi larri batean

murgildurik gaudela –gehien bat genero-ideologiaren eraginez, horregatik bakarrik ez bada ere–, eta esan genezake gure Mendebaldea «arrazoimenaren itzalaldia» nozitzen ari dela.

Abortua eta eutanasia bere giza eskubide bezala aldarrikatzen dituen gizartea, suizidio-prozesu baterako bidean aurkitzen da, gorputzeko suizidioaz gainera suizidio espiritualeko bidean. Badirudi, gure garaiotan, Chestertonek egindako iragarpena bere egia osoa nabaritzen ari garela: «*Ken ezazue naturaz gaindikoa, eta aurkituko duzuena ez da naturala izango, antinaturala baizik*».

Hain zuzen, giza arrazoimenari egia ezagutzeko eta guztien ona eraikitzeko gaitasuna aitortzen badiogu ere, behin eta berriro ikusten dugu «arrazoimenaren itzaladia» gertatzen dela, askotan zentzu komuna bera ere ezeztatzen duten zentzugabeko ideologia batzuen eraginez.

Badira «garaiko bekatu» esaten zaienak, eta itsu izan ohi da orokorrean gizartea horrelako bekatuak ikusteko; hori gertatzen da gaur egun abortuaren kasuan. Harritzekoa bada ere, kulturak oso sentibera izan ohi dira balio jakin

batzuekiko, eta sentiberatasun gabeak beste batzuekiko. Adibidez, XVIII. mendean, Erromantizismoa bete-betean zegoenean, guztiz onartua zegoen Europan sozialki duintasunaren eta ohorearen ikusmolde zuzentzugabe bat; ondo iruditzen zitzaien gizakiek duelua egin eta batak bestea hiltzea beren «ohorea» defendatzeko. Gure egunotan, zorionez, jokabide hori zentzurik gabea eta onartezina iruditzen zaio gizarteari. Espero dugu, XXII. mendea iristean, hurrengo belaunaldiak eskandalizatuko direla, ikustean, XX. eta XXI. mendean, iraultza teknologikoan buru-belarri murgildurik geundenean, haurrak sortu ondoren eta jaio aurretik hilarazi egiten zituztela...

4. *Funtsezko arazo egiazkoa, krisi existentziala*

Erabat oker egongo litzateke, abortuaren sustrairik behinena ideologikoa dela uste izango lukeena... Ideologiek badute noski beren eragina, eta handia gainera; baina kontuan hartu behar da, genero-ideologiaren atzean, feminismo erradikalaren, pansexualismoaren,

etab.en atzean, zauri afektibo oso larriak ezkutatzen direla, eta horiek dira gure egunotako gertaera lazgarrien arrazoi erabakigarriak.

Arazorik behinena, funtsezko arazoa, materialismoak utzi digun hutsune existentziala da. Ezin konta ahala zauri afektibo daramagu, hurkoaren berekoikeriaren esperientzia gordinak eragindako ondorio dena: giza maitasunaren hauskortasunak, famili hausturak, etsipenek eta estutasunek, bere buruaren kontrolik ezak, etab.ek eragindako ondorio. Hauek dira funtsezko arazo egiazkoak; ideologiak, ordea, gehienetan «aurre aldera ihes egitea» besterik ez dira izan ohi, norberaren desesperazioa estaltzeko ahalegin zoroa.

Ikuspegi honetatik, oso ondo ulertzen da Frantzisko Aita Santuak behin eta berriz esaten duena: Elizak, gaitz moralen salaketa egin aurretik, kerigma edo Berri Ona aldarrikatu behar duela, alegia; hau da, Jainkoak eskaintzen digun zoriontasunaren promesa aldarrikatu behar duela, eta horrekin batera, heziera sakona eman.

5. *Biziaren alde ala abortuaren aurka*?

Bistan denez, ez dago «biziaren aldeko» izaterik, aldi berean «abortuaren kontra» egon gabe; izan ere, biziaren dohaina aitortzearen ondorio logikoa «ez hil inor» onartzea da. Alderantziz, agian, posible litzateke «abortuaren kontrako» jarrera izanik, «biziaren aldeko» benetako jarrerarik ez izatea; baina egiaz ez da hori kristau-aukera.

Beste era batera esanda, kristauok ez gara «biziaren aldeko» bakarrik, baizik eta erantsi beharko genuke, «bizitza duinaren aldeko» garela. Hau da, gure borroka ez da abortuaren gaitz moralaren kontra bakarrik egina, baizik eta gizakiak zoriontsu izateko duen bokazioari eraso egiten dioten gaitz moral guztien kontra.

Hemen, berriro ere, Frantzisko Aita Santuaren intuizioa azpimarratu nahi dut, pobretasun moralen arteko zerrendan sartzen baitu abortua: «aterperik gabeen», gai toxikoen mendeko direnen, errefuxiatuen, herri indigenen bereizkeriaren, zaharren bakardadearen, emakume gaizki tratatuen eta bereizien, etab.en arteko zerrendan. Izan ere, gaitz moralei denei batera

aurre egiten ez bazaie, biziaren aldeko ekintzaren balio morala oso murriztua gelditzen da.

Ikuspegi honetatik, Elizak aurrera daramatzan ekintza sozial ugari guztiak eta bakoitza, «biziaren aldeko» ekintzaren parte dira, hala nola, Caritas, umezurtz-etxe, zahar-etxe, Gizakia Helburu erakundea, Esku Batuak, errefuxiatu-eremu, emakumeentzako harrera-etxe, prostituziotik ateratzen laguntzeko proiektu, etab. guztiak.

Baina aitortu behar dugu, Frantzisko Aita Santuak *Evangelii gaudium* aholku-hitz apostolikoan egiten duen bezala, haurdun dagoen emakumearekiko gure jarduera gutxiegia izan dela, lehen bezala orain ere. Izan ere, abortatzeko tentaldian aurkitzen den emakume baten atzean, gehienetan, bere amatasunarekiko bakardade izugarria ezkutatzen da. Haurra hezi, mantendu eta zaintzeko erronkaren aurrean ezintasun handia nabaritzea, batez ere agian malformazioren batekin etor daitekeela esaten zaionean. Guztiz beharrezko da emakume haurdunarekiko gizarte osoaren solidaritatea. Bada Afrikako esaldi bat «*haur baten hezierarako, tribu bat behar dela*» dioena.

Haurdunaldi bakoitzaren inguruan, gure kulturan hain hedatua dagoen indibidualismotik ateratzeko dei larria dago, kontuan izanik, jarrera indibidualistak ezinezkoa egiten duela beste bati harrera egitea eta berarekiko harremana, batez ere beste hori ahula eta behartsua denean. Eta haurdunaldia arazotsua denean erronka baten aurrean jartzen gaitu egiaz, geure barruan dugun onena atera ahal izateko.

6. *Adopzioa duin bihurtu*

Harritzekoa bada ere, mendebaldeko gure kulturan, oso ondo ikusia dago adoptatze--kontua familia adoptatzailearen aldetik, baina oso gaizki ikusia haurra adoptzioan ematen duen amari dagokionez. Aski da familia adoptatzaileek urrutiko lurraldeetara bidaia egin behar dutela aipatzea, berehala bere haurra adopzioan emateko prest dagoen ama bat aurkitzeko. Baina, hezteko beharrezko diren baliabideak ez izateagatik, bere haurra uzteko prest dagoen amaren eskuzabaltasunik gabe, ezinezko izango litzateke adopzioan hartuko duen familiaren eskuzabaltasuna.

Egia esan, ez dugu aintzakotzat hartu ohi, bere haurra adopzioan emateak esan nahi duen eskuzabaltasuna. Haurraren on objektiboari ematen baitzaio lehentasuna, eta ez haurra beretzat izateko grinari. Halabeharrez, bi arrazoibideren aurrean aurkitzen gara: *«Neurea ezin bada izan, ez da inorena izango*» dioena, edota alderantziz, «*Nik ezin badut zoriontsu egin, zoriontsu egin dezakeen beste norbaiti emango diot*» dioena.

Bada Liburu Santuan pasarte hunkigarri bat, amaren egiazko senaren eskuzabaltasuna azpimarratzen duena (*1 Erregeak* 3, 16-28). Arretaz irakurtzea merezi du. Salomon erregearen aurrean eztabaidan ari dira bi ama; haurtxoa bietako norena den dute eztabaida-gai. Salomonen jakinduriak erraz erabakitzen du nor den egiazko ama: haurra bizi zedila nahiago izan zuena, nahiz eta besteak hazi beharko zuen!

7. *Eliza ama*

Elizak ez du bere amatasuna «biziaren aldeko» eta «abortuaren kontrako» borrokan erakusten; abortatu duen emakumeari harrera

errukitsua egiten erakusten du era berezi-berezian amatasun hori. Elizak badaki ondo asko –esan dezadan berriro ere–, abortuaren bigarren biktima emakumea bera dela.

Batzuetan pentsatu ohi da –oker, jakina–, Elizak ez duela bere ama-aurpegia erakusten, abortua kondenatu eta hori «erailtzea» dela esaten duelako. Baina hori ez da horrela. Egiazko amatasunak batean lotzen ditu karitatea eta egia. Ez dago egiarik karitaterik gabe, ezta karitaterik ere egiarik gabe. Arazo honen giltza itxaropena da. Itxaropenak elkartzen baititu egia eta karitatea, elkarren aurka jarri gabe. Elkarren artean lotzen dituen uztarria bezala da itxaropena: maitasunezko egia eta egiazko karitatea. Abortatu duten emakumeei hitz hunkigarri hauek zuzentzen dizkie Eliz Irakaspenak, Joan Paulo II.aren *Evangelium vitae* entziklikan:

> *«Gogoeta berezi bat egin nahi dut, zuei, abortua egitera jo duzuen emakumeei, zuzendua. Elizak badaki hainbat baldintzapen izan izango duzuela, zeuen erabaki hori hartu izateko, eta ez du zalantzan jartzen, mingarria izango zela, eta baita larria ere. Seguru asko, zuen baitako zauri hori ez da sendatu izango. Egia da,*

gertatu den hori benetan zuzengabea izan zela, eta gaur ere hala dela. Hala ere, ez erori etsipenean, eta galdu itxaropena. Alderantziz, uler ezazue gertatu dena eta aztertu bere egiatasunean. Zabal ezazue zeuen barrua apaltasunez eta konfiantzaz damura, oraindik ez baduzue hori egin; guztiz errukitsua den zeruetako Aita zain daukazue Adiskidetzearen sakramentuan bere barkamena eta bakea emateko. Zuen haurra ere Aita horren ontasunaren eta errukiaren besoetan utz dezakezue konfiantzaz eta itxaropenez. Lagun dituzuen pertsona adituen aholkuaren eta hurbiltasunaren laguntzaz, guztien eskubide den biziaren aldeko sutsu direnen artean egon zaitezkete zeuen testigantza mingarria egiten. Biziaren aldeko zuen konpromisoaren bidez –agian ume berriak jaio direlako pozarekin eta hurbiltasunbehar handiagoa duen norbaiti eskainitako babes eta arretarekin zuen konpromiso hori adieraziz–, lankide eta eragile izango zarete gizakiaren bizitzari era berri batean begiratzeko» (EV 99. zk.).

Gizatasun-alorrean aditua den Elizak esperientzia handia du, abortatu duten emakumeei laguntasuna eskaintzen, eta zuzenetik ezagutzen du horietako askok berregin duela bere

bizitza, eta bat baino gehiago «biziaren aldeko» ekintzatan sartu eta biziaren babesle sutsu ere egin dela.

Sinesturik nago, latinezko «Ecclesia» (Eliza) hitza generoz femeninoa izateak baduela arazo honetan bere zerikusia. Izan ere, Elizak eta emakumeak bizia ematea dute beren bokazio berezi berdina, eta, era berean, «ama errukitsu» izatea ere badagokie bokazio guztiz berezian eta berdinean.

Gogoeta hauei bukaera emateko, zeruko gure Amarengana, Andre Maria Birjinarengana, itzultzen ditut begiak; «biziaren ama» dugu eta, aldi berean, «errukiaren ama». Beraren eskuetan uzten ditugu ama guztiak, batez ere haurdunaldi zaila edota ustegabekoa izan dutenak; era berean, gure Amaren eskuetan uzten dugu horien sabaleko fruitua, hori ere «bedeinkatua» dena. Amen!

Donostian, 2014ko martxoaren 5ean
Hausterre-egunean

Gazteak ebanjelizatu «egoera afektibo» larrian

Valentziako Katedralean
Gazteen Pastoraltzako Lehenengo Kongresuan
emandako hitzaldia
2012ko azaroaren 3an

Gazteak ebanjelizatu «egoera afektibo» larrian

Karlos Osoro jaunak eman zion atzo hasiera Gazte Pastoraltzaren Nazioko Lehen Kongresu honetako gogoetari. Gure begirada Kristogan kokatzera eragin zigun: «*Zuretzat bizia Kristo da*». Gazte Pastoraltzan sartuak gaudenontzat hau da benetako giltza; hortik abiaturik, beste hizlariok esan dezakegun guztia guretzat albiste nagusia den Kristo horren oihartzun izango da, bera baita gazteen askatzailea eta sendagilea.

Askotan esan ohi dugu, gaur egungo gazteari hitz egin ahal izateko, ezagutu egin behar dugula lehenengo. Baina, nola irits gintezke bera ezagutzera? Tentazioa izango litzateke, horretarako azterketa soziologiko edo inkestetara bakarrik jotzea: «Ikus dezagun nola dauden gaur egungo gazteak...!» Hori beharrezko da; aski da Joan Manuel Cotelok kongresuaren prestaerarako ekoiztu duen eta sareetan zabalkunde handia eta izugarrizko arrakasta izan duen: «*Zuek ere egingo duzue aitormen*» bide-

oa ikustea. Bideo horretan, abiapuntu gisa, erlijio-gaia gaurko gazteengan nola ikusten den aztertzen da, errealismoz eta egiari beldurrik izan gabe aztertu ere.

Baina gaur egungo gaztea egiaz ezagutu nahi badugu, datu soziologikoek esaten digutena gainditu beharra daukagu. Jesu Kristo sakontasunez ezagutu behar dugu, izan ere Kristogan bakarrik ezagutuko dugu sakonki gaztea. Giltza teologiko hau garrantzi handikoa da inkestek esaten digutena ondo ulertzeko. Badakit fededun ez direnei kosta egingo zaiela hau ulertzea, baina ez dugu ahaztu behar sineste honek bat egiten duela gure tradizio espiritual onenarekin. Esate baterako, Espainiako Urrezko Mendean honela zioen Santa Teresak berak: «*Nire ustez, ez dugu inoiz geure burua ezagutuko, Jainkoa ezagutzen ahalegintzen ez bagara*».

Duela berrogeita hamar urte, Vatikanoko II. Kontzilioan bildutako eliz Artzainek aldarrikatu zuten: «*Jainko ikusezinaren irudi, eta izaki guztietan lehen-sortua den Kristoren argitan, Kontzilioak guztiei hitz egin nahi die, gizakiaren misterioa argitzeko*» (*Gaudium et spes*, 10). Horrela bada, mende erdi bat gero-

ago, Valentzian bildua dagoen Gazte Pastoraltzako Kongresu honek ere hori aitortzen du eta aldarrikatzen: Kristogan –Kristogan bakarrik– agertzen da eta aurki daiteke gaztearen bihotza egiaz!

Arazo handiak ditugu Ebanjelioa gazteen bihotzean entzunarazteko, eta horren arrazoi nagusienetako bat geuregan dago: zailtasun handiak ditugula eta ez dugula lortzen Kristoren Bihotzera iristea; ez dugula ezagutzen hark gu guztiontzat –gazte ebanjeliztzaile eta gazte ebanjelizatu beharrekoentzat– duen asmo errukitsua. Hain zuzen, Kristogandik eta Kristogan ezagutu behar dugu egiaz gazteen egoera; honela zioen San Bernardok: «*Geure burua ez ezagutzeak harrokeria sortzen du, eta Jainkoa ez ezagutzeak etsipena*».

Horrela bada, gaztearen bihotza Kristoren bihotzaren argira ezagutzeko gai garela ikusirik, bigarren hitzaldi honetan bihotz hori nola dagoen galderari erantzuten saiatuko gara, eta nolako zauriak dituen bere afektibitatean Espainiako gazteriaren zati handi batek; eta egoera afektibo aski larria den honen aurrean, zer-nolako erantzuna eskaintzen duen Elizak Ebanjelizatze Berria dela eta... Ez dugu zalan-

tzarik izan behar, gazteen oraingo belaunaldiak nozitzen duen egoera afektibo larria aukera berdingabea dela gazte guztiei «Jainkoa maitasuna dela» gogorarazteko, maitasun-elkartasunean bizitzeko bokazioarekin sortu gaituela Jainko horrek, eta beharrezko dugula Kristoren Ebanjelioaren betiko berritasuna aurkitzea geure betetasuna lortzeko.

Bihar, Jainkoa lagun, Stanislaw Rylko Mons.ak, Laikoen Erromako Kontseiluko Presidenteak, hitz egingo digu gazteen ebanjelizatzeari buruz; hezierari dagokion egoera larriak jotzen digun erronkaren ikuspegia azalduko digu berak. Jainkoaren hitzak adierazten digunetik dakigu «Jainkoa Egia dela»; horregatik, heziera-alorreko krisialdi hau –gaur egungo erlatibismoaren, aldi berean, alaba eta ama den krisialdi hau – sendatu eta gainditu ahal izateko fedea da beharrezko. Baina ez diot Rylko Kard.ari gaia kendu nahi; bi hitzaldi hauen artean dagoen lotura eta osagarritasuna azaldu nahi dut, besterik gabe. Gaur egungo gazte eta heldu askok zauri sakonak ditu bere borondatean eta adimenean, Kristoren egiazko aurpegia ezagutzea galarazten dieten zauriak. Eta, gezurra badirudi ere, Jesu Kristoren beraren

beharra dute zauri horiek sendatu ahal izateko. Nork askatuko digu askaezina dirudien kontraesan honen korapiloa? Gazteen Erregina eta Ama den Andre Mariari egingo diogu dei laguntza eskatuz.

Zein dira gaurko kultura modernoak eta posmodernoak gazteen afektibitatean eragin izan dituen eta eragiten dituen kalterik handienak? Nola aurkeztu Ebanjelio askatzailea, Ebanjelizatze Berriaren testuinguruan, zauri horiek sendatu eta berriro Kristogandik jaiotzeko?

Lehenengo zauria: NARTZIZISMOA

Psikologi arloko xehetasunetan sartu gabe, baizik eta antropologiaren, moralaren eta teologia espiritualaren arteko erdibideko hizkera erabiliz, nartzizismoa nor bere baitan bilduta kontenplazioan gelditzea dela esango dugu.

Ezaguna den greziar mito batek dio, ninfa bat Nartzisoz maitemindu zela, baina honek ez ziola era berean erantzun. Ninfagandik iheska ziohala, bere irudia ispilatua ikusi zuen ibaian eta txundituta gelditu zen; bere buruaz erabat

maitemindua gelditu zen, uretan murgildu eta itota hil zen.

Azken batean, nartzizismoa, norbera ez den beste «zu» bat maitatzeko ezintasuntzat, edo behintzat zailtasuntzat, hartu ohi da. Nartzizismoa hipersentiberatasunarekin lotua dago; sentimenduak eta beldurrak absolutu bihurtzearekin eta, bizitzan gauza guztiak norberaren inguruan balebiltza bezala, okerreko ikuspegia izatearekin lotua.

Alderantziz, judu-kristau Agerpen edo Errebelazioak erakusten digu praxiaren bidez, maitatzea irteera bat dela beti. Salbamenaren historia Jahvek bere herriari betetasunean bizitzera egiten dion deiaren historia da; horretarako beharrezko da nor bere ingurunetik irtetea, lurralde berria, desberdina eta ezezaguna den baten bila joatea, ibilbide hori gure zoriontasuna nahi duen Jainkoagan itxaropen sendoa duenaren konfiantzaz eginez.

Zail izango da nartzizismoaren zauria sendatzea, maitasunean elkarturik bizitzeko bere irudira –gizon eta emakume– sortu gaituen Jainkoaz ahazten bagara. Gizonak eta emakumeak desberdinak dira eta elkarren osagarri.

Horrela ulertu ahal dugu, maitatzea bestearengan dagoen ona sustatzea dela; baina nartzizista izateko joera duenarentzat ezinezkoa da hori, lagun hurkoaren jabe izateko joera baitu, hura bere antzeko egitekoa, desagerrarazteraino.

Interesagarria da, aipatu greziar mito horren bertsio desberdinetako batek dioena ikustea, Nartziso delakoaren sorkuntza bortxakeria baten ondorio izan omen zela eta, beraz, sorkuntzan berean izan zuela hasiera haren tragediak. Nartzisok berekin zeraman zauri hori –gaur egun esango genuke, gogoz kontra etorritako haurra dela dakienaren zauria zuela–; horregatik, bizitza guztian zehar noraezean ibiliko da, bere sufrimendua gainditu nahi eta ezinean, eta aurre aldera ihes egiten eginahal guztian. Gizonak eta emakumeak, mundu honetakoak eta jainkoak zirikatzen ibiltzen da; irrikak eta grinak sorrarazten, nahiz eta gero horiei erantzuteko bera gai ez izan, ez baita gauza maitatzeko eta besteen nortasuna aitortzeko.

Harrigarria da, bi mila urte eta gehiago dituen mito batean, Jesu Kristo baino lehenagokoa den mitoan, gaur egungo gaztearen zauriak hain zehatz irudikatuak ikustea! Edota

hobeto esanda, gaur egungo gizon-emakumeen zauriak!

Teknologiak izugarrizko abiadan aurreratzen ari dira, baina kontrakoa gertatzen da afektibitateak bizi duen egoera larriaren dramarekin; zoriontasuna bilatzeari dagokionean ez du ematen asko aurreratzen dugunik; batzuetan –gure aurrekoek dioten bezala– atzeraka goazela dirudi. Gazteak darabilen sakelako telefonoa azkeneko belaunaldikoa da, baina beraren bihotza dortokaren antzekoa, Zenon idazleak «*Akiles eta dortoka*» izeneko bere aporian aipatzen duen dortokaren antzekoa, ez baita inoiz helburura iristen..., maitasunaren helburura, alegia.

Nartzizismoak elkarren kontrakoak diruditen –hala ez izanik ere– bi ezaugarri ditu. Euforia-uneetan, gaur egungo Nartzisoak, dabilen tokian, lehenengo lekuan egoteko nahikeria barregarria izaten du, "ezkontzako andregaiaren" lekuan egon nahi luke, edota "Bataioko haurraren" lekuan. Eta, alderantziz, beheraldian dagoenean –eta gero eta gehiagotan gertatzen da hori–, gure Nartziso honek "hiletako hildakoa" izan nahiko luke, horrek kontsolatu eta poztuko luke.

Sarri askotan gertatzen da hori: besteengandik hartzen dena beti gutxiegi iruditzea; beti eskale aseezina izatea. Eta gezurra badirudi ere, harreman pertsonalaren bila ibiliko da biktimarena eginez... ("Inork ez dit kasurik egiten!", "Niri gertatzen zaizkit oker guztiak!", "Ez didate ulertzen!", etab.).

Adierazpenak desberdinak izan arren pozaldia edota beheraldia denaren arabera, "ezkontzako jaia" edota "hiletako tristura" denaren arabera, beti zauri beretik hartzen du arnasa, estimazio bila ibiliko da etengabe eta irrikaz aitormen, goraipamen, mirespen... bila.

Hitz batean, nartzizismoa sendatu ezean, ezinezkoa da inor ezagutzea, maitatzea eta –batez ere– Jesu Kristori sakontasunez eta koherentziaz jarraitzea ; eta azken batean, ezinezkoa da zoriontsu izatea. Nartzizismoa sendatu ezean, ezinezkoa da norberaren benetako eskaintza; eta hori guztiz funtsezkoa da Ebanjelioan. Kristoren mezuak, bere osotasunean jasotzen dugunean eta ez beraren zati batzuk bereiziz, hezi egiten gaitu: kexati ez izaten erakusten digu; baikorrak eta esker onekoak izaten; geure irudiaz neurrigabe kezkaturik ez egoten, gaixotzeko eran geure buruari begira

ez egoten; besteen aurrean beti bereziak izateko gogoa gainditzen; kritiken aurrean hipersentiberak ez izaten...

Horrela bada, ikus dezagun orain zertan ahalegindu beharko genukeen gazteei Ebanjelizatze Berria eskaintzen diegun une honetan, eraginkorrak izan gaitezen nartzizismoaren zauria sendatzen eta posible egin dezagun Kristori eskuzabaltasunez jarraitzea. Pausoz pauso abia gaitezen:

a) *Jainkoak digun maitasunaren aldarrikapenean oinarritzen da autoestimua*

Ikuspegi herrikoian uste izaten da, nartzizismoa gehiegizko autoestimua dela, baina hori ez horrela. Lehenago esan dugunez, bere burua mespretxatzea danartzizismoaren adierazpenetako bat. Izan ere, nartzizismoaren kontrakoa ez da bere burua mespretxatzea, autoestimu orekatua izatea baizik. Horrek esan nahi du, nartzizismoa bere buruarenganako maitasun osasuntsuaren eta orekatuaren hezieraz sendatzen dela. Gehiago oraindik, «norbererenganako maitasun» hori (gaur egun «autoestimua» esango genukeena) da, lagun hurkoa

maitatzeko Kristok erreferentzia mo-duan jarri digun neurria: «*Maita ezazu lagun hurkoa zeure burua bezala*».

Ebanjelioak ukapenaz eta norberaz ahazteaz hitz egiten digu, Kristori jarraitzeko baldintza bezala. Baina hori egin ahal izateko, beharrezko da Jainkoaren begirada aurrean dugun balioaren esperientzia bizian eta eguneratuan oinarriturik egotea. Ez dugu ahaztu behar, autoestimua ez datorrela gauza asko egitetik, edota arrakasta handiak izatetik, ezta itxura fisiko ederretik ere...; besteek maite nautela jakitetik baizik. Zalantzarik gabe, gure kultura honetan, autoestimurik ezaren arrazoi nagusienetako bat familiaren krisia da, eta horrekin batera, Jainkoak digun maitasun pertsonalaren eta neurrigabearen kontzientziarik eza. Horregatik, Jainkoak pertsona bakoitzari dion maitasun amaigabea aldarrikatzeak izan behar du gazteen ebanjelizatzearen bizkarrezurra.

Gazteak, hobeto esanda, hemen gauden guztiok –ispilu honetan begira diezaiogun geure buruari!– asko sufritu ohi dugu geure sentimenduen gorabeherekin. Besteek gutaz duten iritziaren arabera geure burua balioz-

tatzeko arriskua dugu; norbaitek gutaz zerbait esan duela-eta edota gauzaren bat gaizki atera zaigula-eta... lur jota gelditzeko arriskua. Izugarria da, gure gogo-egoera haize aldakorra denean haize-orratza ibili ohi den moduan dabilela ikustea. Nola lortu emozio-gune egonkorra, finkoa eta sendoa?

Horren erantzuna Jesu Kristok egindako salbamen-ekintza dugu berriro ere. Gizakiaren balioa handia da, handia den bezala Kristoren odolaren beraren balioa. Geure burua gutxiesteko edota menspretxatzeko tentaldia dugunean, gogoratu behar dugu «Jainkoak ez duela zaborra egiten»; batzuetan, ispilura begiratzean, geure buruaz hori pentsatzeko tentazioa badugu ere. Gutako bakoitzagatik eman du Jainkoak bizia; zugatik, nigatik... batzuetan unibertsoaren erdigunea naizela, beste batzuetan berriz hondakin hutsa naizela uste badut ere.

Gure autoestimua ezin daiteke gutaz besteek ondo edota gaizki hitz egiten dutenaren mende egon. Ezta gauzak hobeto edota okerrago ateratzen zaizkigunaren mende ere... Dudarik gabe, ondo hartuko ditugu beti besteen guri

buruzko jardun baikorrak, eta poz emango digute geure lorpen eta arrakasta txikiek; baina gure bizitzaren egiazko azken balioa ez daiteke horretan oinarritu. Osterantzean –gure kultura nartzizista honetan askotan gertatzen den moduan–, «afektibitate-eskale» izango ginateke, eta ez «maitasunerako bokaziodun».

Kristo gurutziltzatua da gutako bakoitzak Jainkoarentzat dugun balioaren neurri justua. Kontua ez da hori teoria hutsean ulertzea, hori barneratzea eta pertsonalizatzea baizik, eta geure nortasun-agiri bihurtzea. Horretan fedea izan gabe, guztiz ezinezkoa izango litzateke norberaren ukapena; eta nartzizismoaren esklabo izatera zigortuak egongo ginateke. Ukapenak eta norberaz ahazteak, Kristok Ebanjelioan predikatzen digun zentzuan, norberarenganako maitasuna eskatzen du.

Jainkoak baldintzarik gabe maite duen esperientzia duenak bere burua aurkitzen du, eta orduan egiten da gai bere buruaz ahazteko besteekiko harremanetan. Baina, kontuz!, hori ez da mespretxuaren bila dabilelako, Jainkoagandik hartu duen maitasun neurrigabeaz aserik dagoelako baizik, eta maitasun horren kontzientzia bizia duelako.

b) ***Espiritu-bizitza orekatua (mistika-aszetika)***

Jesu Kristoren Ebanjelioak maitasunaren mistika aurkezten eta proposatzen digu, eta horrek berekin darama geureaz ahaztea eta geure eskaintza eskuzabala egitea. Agian, azkeneko hamarkadetan, ez dugu puntu hau behar adinbat azpimarratu; lehenago alderdi mistikoa behar adinbat azpimarratzen ez zen bezala, moralismoan eroriz. Asko dira eta garrantzi handikoak alderdi aszetikoa nabarmentzen duten Ebanjelioko pasarteak: *«Nire ondoren etorri nahi duenak har beza bere gurutzea eta jarrai biezat*»; «*Nire alde ez dagoena nire kontra dago*»; «*Ezin da inor bi nagusiren morroi izan*»; «*Bere bizia gorde nahi duenak galdu egingo du; bere bizia Nigatik galtzen duenak, ordea, eskuratu egingo du*»... Beraz, Ebanjelioak norberaren ukapena aurkezten digu, bere heldutasuna lortzeko bertute ezinbesteko bezala, eta Jainkoarekin harremanak izatera zabalik egoteko.

Ausardiaz esango nuke, Gazte Pastoraltzaren Kongresu honetara etorri garenetako gehienok izan dugun hezieran Seme Hondatzailearen parabola izan dela Ebanjelioaren irakurketako erdigune nagusia gure haurtzaroaz ge-

roztik. Dudarik gabe, Seme Hondatzailearen parabolak lagundu digu Jainkoaren maitasunaren ekimena azpimarratzen; horretan oinarritzen da eta horrek egiten du posible gure konbertsioa. Izan ere, Jainkoaren baldintzarik gabeko maitasunak ematen dio gizakiari gaitasuna, bere bizitza maitasun horren erantzun eskuzabala bihurtzeko.

Hala ere, guk nozitzen dugun afektibitate-krisiaren inguru honetan, ez dut uste aski denik maitasunaren ideal hori aldarrikatzea; beharrezko da Ebanjelioaren beste pasarte batzuk ere sakontzea, Kristoren Bihotza baita maitasunaren eskola. Este baterako, nola maitatu, hori norberaren estimuarekin nahastu gabe? Nola utzi kexati izateari eta berekoi izateari? Nola bideratu gure bizitza geure buruaz ahaztearen mirarira? Izan ere, zailagoa iruditzen zaigu mirari hori, itsu jaio zena sendatzearen, ogien ugalketaren edota Tiberiadesko aintziran ur gainean ibiltzearen miriariak baino.

Hain zuzen, ez dago mistikarik aszetikarik gabe, ezta aszetikarik ere mistikarik gabe. Nire ustez, mistikak eta aszetikak Ebanjelioan bat egiten duten lekua Kristoren Gurutzea da. Kristoren Nekaldia egiazko mistika eta egiazko aszetika da, aldi berean. Uste dut, gure be-

launaldiko gazteei egin diezaiekegun ekarpenik handiena, berorien zauri afektiboak sendatzeko eta maitasunerako gaitu ahal izateko, Kristoren Nekaldia aurkeztea dela; eta ez jainkozko maitasuna agertzen den leku bezala bakarrik, baita «giza maitasunaren eskola» bezala ere.

Agian, azkeneko hamarkadetan, gutxitxo erabili dugu prediku-gai Kristoren Gurutzea. Ez naiz kerigmaren predikuaz bakarrik ari, horrek pedagogian, laguntasun espiritualean, etab., izan behar duen erabilera praktikoaz baizik. Kristoren Gurutzeko eskola gabe, Piztueraren aldarrikapena mezu kontsolagarri huts bi-hurtzen da; baina hori ez da gai gure zauriak sendatzeko eta guri maitasunera eragiteko. Ezin dugu ahaztu, «piztuera» aipatzen dugunean, «Gurutziltzatuaren Piztueraz» ari garela beti hizketan.

c) *«Idealismoaren» eta «errealismoaren» artean, «laguntasun espirituala»*

Bada guztiok nozitzen dugun eta garrantzizkoa den beste alderdi bat azpimarratzea beharrezko iruditzen zaidana, nartzizismo-joera hori sendatzeko: «errealitatea apaltasunez

onartzea». Hain zuzen, batzuetan gertatzen da nartzizistak «utopian» bilatzen duela babesa, edota zehatzago, hori erabiltzen duela aitzakiatzat. Askotan ikusten da, amets utopikoetara jotzen dela, norberaren pozik eza eta etengabeko kexa zuritu nahirik!

Ebanjelioko bideak goragoko ametsak izatea irakatsi digu, baina oinak lurrean direla betiere. Kristaua ezin daiteke bere denbora eta ahalmenak galtzen ibili kexa eta lantu antzuekin. Errealitatea kristau-zentzuz onartzeak ez du esan nahi errealitate hori aldatzen saiatu behar ez dugunik. Alderantziz, errealitatea onartzea ezinbesteko baldintza da berori aldatzeari ekiteko. Fedearen inguruko bere borroka artean, honela zioen Unamunok: «*Gertatzen den guztia nahi duenak nahi duen guztia gertatzea lortzen du. Onartzearen bidez lortutako gizakiaren guztiahaltasuna!*» Azken batean, nartzizistak dena aldatu nahiko luke, bere burua izan ezik. Kristaua, ordea, dena aldatzen saiatzen da, baina bere buruagandik hasita.

Horrela bada, Penitentziako sakramentua eta laguntasun espirituala garrantzi berezia duten eta beharrezkoak diren bideak dira, gure «idealak» eta gure «errealitatea» elkarrekin lotzeko. Izan ere, gaztearen bihotzeko idealismoa, bizitzako erantzukizunei aurpegi eman

behar zaienean, amets utopiko bihurtu eta batbatean hutsean geldi ez dadin, garrantzizkoa da ulertzea, ez dagoela egiazko idealismorik norberaren konbertsiotik hasten ez bada. Hori da, hain zuzen, «68ko Maiatzeko» belaunaldi utopikoari gertatu zitzaiona. Idealismo hura gehiago izan zen sistema politikoaren kontrako kexa, norbera eraberritzeko ahalegina baino.

Kristauaren idealean, utopiaren maximoa batera doa errealismoaren maximoarekin. Kontua ez da eguneroko bizitza ohikotik ihes egitea, baizik eta ohikoa aparteko eran bizitzea. Norberaren errealitatea onartu behar dugu –geure ikasketak, familiarekiko harremanak, lana...–; materialegia eta gertuegia iruditzen zaigun errealitatea onartu behar dugu, hor irteten baita, hain zuzen, Jauna gure bila. «*Ikusi nire esku-oinak, Ni naiz*», esan zuen Jesus berpiztuak. «*Uki nazazue eta begira: mamuak ez du hezur-haragirik, eta Nik bai, ikusten duzuenez*» (*Lk* 24, 39).

d) ***Pobreengan dagoen Kristok ebanjelizatzen gaitu***

Nartzizismoa sendatzeko eta norberaren eskaintza eskuzabalerako Ebanjelioko pedagogia honetan garrantzi handia duen zerbait azpimar-

ratu nahi nuke. Lagun hurkoaren sufrimendura hurbiltze-esperientziek gazteen bihotzean izan dezaketen indar sendatzailea, alegia.

Egia da; biktimarena egiteko eta kexati izateko joera gaixotia izatera eramaten gaituen nartzizismoa gainditzeko erarik onenetakoa egiazko biktimak ezagutzera hurbiltzea da; hau da, bakardadean bizi diren zaharrengana, gizarteak ihes eta ezikusiarena egiten dien gaixo psikikoengana, larrialdiko jangeletara joaten drenengana, Hirugarren munduko pobreengana... hurbiltzea. Egiazko talka-terapia da hori, gure nartzizismoa sendatzeko eta bihotz zabaleko maitasunean hezteko oso eraginkorra izan daitekeena. Azken hamarkadetan ikusi ahal izan dugu, zenbat on egin duen gazteen bihotzean hainbat esperientziatan parte hartu izanak: lan-eremuetan, misiolari-egitasmoetako laguntza-taldeetan, Afrikan edota beste lekuetan borondatezko taldeetan, etab. Gauza jakina da, gazteriaren kopuru osoarekin alderatuz gutxiengo bat direla horrelakoak; baina esperientzia hori garrantzi handiko erreferentzia gertatzen da Gazte Pastoraltzarako.

Bestalde, esperientzia horrek berak erakusten digu, beharrezko dela, oinazearen eta bazterketaren mundura hurbiltze honetan era ego-

kian laguntasuna eskaintzea. Gaztearen bihotza hezten duena ez da, besterik gabe, pobrezia, baizik eta edozein sufrimendu-egoeratan Kristo aurkitu ahal izateak hezten du. Bera da sufritzen daudenei laguntzera doazenengana hurbiltzen dena. Hau da, egia izanik «pobreek ebanjelizatzen gaituztela» esaldia, ez dugu ahaztu behar pobre eta baztertuengan Kristo aurkitzeak duen garrantzia; horrela igaro behar dugu teoriatik egiaztatutako bizikizunera.

Bigarren zauria: PANSEXUALISMOA

Gure garai honen eta gure kulturaren bigarren ezaugarria pansexualismoaren edo ingurumeneko hipererotismoaren fenomenoa da, praktikan eremu eta leku guztietan sartua dagoena. Etengabe «sexu-alorreko erne-egote» batean bizi garela dirudi, eta horrek baldintzatu egiten du bizitzaren egunerokotasun ohikoena. Izugarria da erotismoaren erasoa: zaletasunak eta bat-bateko jarduera itxuak esnatzen ditu, desoreka kontaezinak eta norberaren borondatearen kontrolik eza sorrarazten, eta, ondorioz, geure eskaintza egiteko gaitasuna kentzen digu. Garbi dago, horrela, arrisku larrian jarriak gertatzen direla fedea eta erlijiotasuna, bal-

din eta gazteak eta helduak gai ez badira jarrera kritikoa izateko afektibitatearen, sexuaren eta maitasunaren ikuspegi zatikatu eta desintegratu honen aurrean. Materialismoak eta hiperrerotismoak mendean hartua duten kultura honetan, ez da batere erraza Ebanjeliko balioak koherentziaz bizitzea. Eta okerrago dena, gazte asko ingurumen pansexualista honetan jaioak eta haziak izanik, ohiko gauzatzat hartzen dute hori. Hori gertatzen zaio hiru mila metroko altuera duen lekuan jaio eta bizi denari, ohitua dagoela atmosferaren presio hartara. Bera konturatzen ez bada ere, bera bizi den lekuko presio hark bere eragina du objektiboki bere gorputzean eta osasunean.

Horregatik, gure belaunaldiak duen zauri afektiboaz ohartzeko beharrezko da, denok hartu dugun eta bihotzaren hondoenean grabatua daramagun maitasunerako bokazioaren ezagutze antropologiko eta teologiko sakona izatea. Horretarako, Elizaren Irakaspenak argitaratuak dituen idazkiak irakurtzeko deia egin nahi dizuet. Hau duzue Gotzainen Batzarrak azkenaldi honetan argitaratu duena: «*La verdad del amor humano. Orientaciones sobre el amor conyugal, la ideología de género y la legislación familiar*» (2012).

Eliza aspertu gabe ari da irakasten, maitasunaren jatorria ez dagoela gizakiagan beragan; baizik eta maitasun horren iturburua Jainkoaren beraren misterioa dela, gizakiari agertzen eta bidera ateratzen zaion Jainkoaren misterioa. Maitasun horren jatorria onarturik, ulertzen dugu gutako bakoitza maitatzeko sortua izan dela, eta gizakion maitasuna jainkozko maitasunari ematen diogun erantzuna dela. Maitatzen ikastea, lehenengo eta behin, besteen maitasuna jaso, onartu, bizi eta norberaganatzea da. Jainkozko maitasunean sinestea, maitasuna garaile izango den itxaropenean bizitzea da. Aldi berean, Elizak irakasten du, maitasunaren egia gure gorputzaren hizkeran edo izaeran ezarria dagoela. Izan ere, gizakia espiritua eta materia da, arima eta gorputza; baina funtsezko batasuna dutela; horrela, sexua ez da pertsonari erantsi zaion protesi moduko bat, pertsonaren muinik barnekoena baizik. Pertsona bera da sexuaren bidez bere izaera adierazten duena; horregatik, sexuarekin jolastea, bere nortasunarekin jolas egitea da.

Ondorioz, Elizak ez du maitasunerako bokazioak duen edertasun teologikoa bakarrik irakatsi bere predikuan; salaketa profetikoa ere egin du, «68ko Maiatzak» aldarrikatutako «sexu-iraultza» deritzanaren inguruan sortu diren

desitxuratze larriak salatuz. Interesgarria da, gai honi buruz, Gotzainen Batzarraren Irakaspen Pastorala, «*La familia, santuario de la vida, esperanza de la sociedad*» deritzana (2001). Gure kultura honetan galdu egin da, neurri handi batean, sexualitatearen zentzua eta balioa. Nolatan gertatu da hori? Aipatu dokumentuak honela argitzen du:

1. Lehenengo, sexuaren eta haurrak sortzearen arteko «dibortzioa» gertatu zen

Kontrazepzioaren zabalkundea erabakigarria izan zen, sexuaren eta haurrak sortzearen arteko «dibortzioa» esan genezakeena eragiteko. Oso denbora gutxian, antisorgailuak neurrigabe erabili izanak aldatu egin zuen gizartearen pentsaera sexualitatearen inguruan. Sexu-harremanak ez du esan nahi bizirako atea zabaltzea. Arinkeriaz erabiltzen da sexu-jarduera; garrantzirik gabeko eta joan-etorri gutxiko jarduera bihurtu da; jolas eta jostaketa huts izatera ere iritsi da. Gehiago oraindik, denborarekin, sexu-harremana ez da lotzen biziarekin, eta bizia ere ez da lotzen nahitaez sexu-harremanarekin. «In vitro ernalketa» da sexuaren eta haurrak sortzearen arteko etena burutzen eta osatzen duena.

2. Gerora, maitasunaren eta ezkontzaren arteko «dibortzioa» gertatu zen

Sexuaren eta haurrak sortzearen arteko lehenengo «dibortzioaren» eskutik, maitasunaren eta ezkontzaren arteko bigarren «dibortzioa» etorri zen. Horretarako argudio hau erabiltzen zen: gauza ederregia eta handiegia omen dela maitasuna, paper juridiko batzuen esparru estuan itxita gordetzeko. Lege-esparru horri «paper gris hotzak» deitzen zion «68ko Maiatzak», eta horrek ahulak babestea besterik ez omen duela egiten: ama, alegia, batez ere, eta haurra. Maitasunaren hilobitzat hartzen zuen, gainera, «68ko Maiatzaren» pentsamolde anarkikoak ezkontza. Bi lagunek elkar maite badute, zergatik izan behar du beharrezko kontratu juridikoak sexu-harremana izateko?

3. Azkenik, hirugarren «dibortzioa» gertatu zen: sexuaren eta maitasunaren artekoa

Merezi du tarte bat hartzea, Espainiako gizarteak denbora gutxian izan duen aldaketa izugarriaz konturatzeko. Une honetan, bikote gehienak elkarrekin bizitzen jartzen dira ezkondu aurretik; gero eta gehiago dira behin

ere ezkontzeko asmorik gabe elkarrekin bizi direnak. Elkarrekin bizitze hutsa praktikan erabiltzen ari diren era da, gero dibortziatzeko paperak egin beharrik ez izateko. Eta, jakina, maitasunaren eta ezkontzaren arteko dibortzio hori azkenean sexuaren eta maitasunaren arteko dibortzio bihurtu da. Zinemako izenburu baten arira esan genezake: «*Zergatik deitu maitasun, sexu esan nahi denean?*»

Ni gazte nintzela –ez pentsa hainbeste denbora igaro denik!– gure gizartearen eskabide askatzaileak moral katolikoaren kontra ekiten zuen, sexu-harremana ezkondu ondoren arte atzeratu nahi zuelako. Orduko oihua zen: «Elkar maite badute, beren maitasuna zintzoa bada, zergatik egon behar dute ezkondu arte?» Baina, begira ondo, orain «elkar maite badute» hartatik berehalako batean kolpetik harreman sexualak izatera joan gara, eta hori nahiko zabaldua dagoen kontua da, bai gazteen artean baita hain gazteak ez direnen artean ere... Gaur egun sexualitatea ez da gertatzen elkar maite duten bi lagunen arteko erabateko eskaintzaren adierazgarria, jolaserako bide baizik eta, zenbait alditan, batak besteari kalte egiteko bide. Azken hau, sexua elkarren mendekurako edo batak besteari kalte-egiteko erabiltzea, alegia, sarri askotan gertatzen den gauza da: «*Berak*

ni jolaserako erabili banau, nik ere gauza bera egingo dut besteekin. Ez dut berriro horrela sufrituko; ez didate berriro kalterik egingo. Jolas egingo dut besteekin, eta kito».

Labur esanda, elkarri lotuta etorri diren «dibortzio» edo maitasunaren «haustura» antropologiko hauek, sexualitatearen barruko maitasun-egitura desegitea ekarri dute. Horrela, sexua bera aski da eta badu zentzua, eta, beraz, utzi egin dio bihotzeko maitasunerako bide izateari. Maitasunaren eta gorputzeko sexuhizkuntzaren arteko haustura honek ezgai egiten du garbi-garbi leialtasunerako. Desbideratze honek dakarren ondorioa, zailtasun psikologikoa eta morala da, maitasuna leialtasunean bizitzeko bokazioa egintzara eraman ahal izateko zailtasuna. Baina, zalantzarik gabe, maitasuna leialtasunean bizitzea da gu zoriontsu egin gaitzakeen gauza bakarra.

Beste zailtasuna bat ere aipatu beharra daukagu. Osasun Publikoaren Ministerioak dioenez, alkohola edaten hasteko legezko adina 13 urte da. Gauza jakina da, alkohola edateak zuzeneko lotura duela «rollo» edo «parranda» esan ohi zaionarekin. Alkoholak berekin ekarri ohi du lotsa galtzea eta printzipio moralentzat axolarik eza.

Baina horrez gainera, leialtasun ezak maitasun-harreman iraunkorrak galaraztea baino kalte handiagoa egiten du; norberaren nortasuna eraikitzea galarazten du! Parrandaren kulturak oso larria den krisia sortzen du, askatasuna konpromisorik ez izatearen pare ulertzera eramaten baitu; horren arabera, leialtasunak esklabotza esan nahiko luke, leialtasun ezak, berriz, askatasuna.

Horrela bada, nartzizismoaren zauriarekin egin dugun bezala, «bigarren zauri» honekin ere galdera egiten diogu geure buruari, zertan ahalegindu beharko genukeen gazteei Ebanjelizatze Berria eskaintzen diegun une honetan, eraginkorrak izan gaitezen pansexualismoaren eta lizunkeriaren zauria sendatzen eta posible egiten lagun dezagun Kristoren jarraipenean kastitatea era pozgarrian bizitzen. Pausoz pauso abia gaitezen:

a) *Kastitatearen bertutea berreskuratu, gaizki ikusia izatetik*

Bataioak Apaiz, Profeta eta Errege den Jesu Kristorekin bat egiten gaitu, eta apaiz-, profeta- eta errege-herri egiten. Gazte Pastoraltzaren Kongresu honetako bizkarrezurra («*Zoazte*

eta hots egin») alderdi profetikoa da. Apaiz-alderdia denok liturgi ospakizunetan parte hartuz adierazten dugu, elkartasuna erakusten eta Jainko errukitsua goraipatzen dugula («*Goratu Jainkoa herriz herri*»). Eta Bataioaren errege-alderdiari dagokionaz..., zer da hori eta nola adierazten dugu?

Hemen aditzera eman nahi dugun egia da, erabateko garrantzia duela kastitateak, Bataioak ematen digun errege-izatea bizi ahal izateko. Izan ere, kristaua ez da bere grinek arrastaka darabilten norbait, baizik eta Kristoren nagusitasunean parte duena. Horrek bere buruaren jabe izatea ematen dio, eta bere grinak eta joerak mendean edukitzea, besteen zerbitzura jarriz Jainkoaren aintzarako. Nork bere buruaren «eskaintza egin» ahal izateko, bere buruaren «jabe izan» behar du. Ezin dio inork Jainkoari egiaz esan: «*Jauna, hemen nauzu, gutiz zurea naiz*», baldin eta kristau-erregetzaren borroka –kastitatearen borroka ere berekin duena– serioski ez badarama. Garrantzitsua da gazteei adieraztea, munduaren konkistak noberaren konkista egitea eskatzen duela. Eta barne-konkista honetan, kastitateak lagundu egiten du, gorputzeko sexu- hizkuntzak bihotzeko maitasunaren egiaz adierazten duena bere ordena egokian eta sintonian jartzen. Zer-

baitegatik esan zuen norbaitek, kastitatea oso lotua zegoela zintzotsunarekin. Garrantzitsua da Gazte Pastoraltzak, gazteen hezieran, maitasun-harremanetan izan behar den gardentasuna adieraztea; baita gaur egun hain zabaldua dagoen liluratze-jokoan harrapatua ez gelditzeko kontu izatea ere. Persona bere betera iristea ez da kromo-albuma osatzea, edota ehizako harrapakinak gehitzea.

Kastitate-bertutea askatzailea da, eta guztiz beharrezkoa maitasunezko harreman egonkorrak, helduak eta egiazkoak izateko gai egin gaitezen. Sarri askotan, lizunkerian bizi diren gazteak ez dute hori, erabaki aske eta borondatezkoaren ondorio bezala egiten, lizunkeriaren dinamikak sortzen duen esklabotzaren ondorioz baizik. Kristori jarraitzeko erabakia bere ondorio guztiekin hartzen duen gazteari berari ez zaio gauza erraza gertatzen, lehenagoko lizunkeri ohitura guztiak erabat uztea. Eta erraza da horren arrazoia ulertzea: gorputzak «memoria» du; hau da, sentipenen memoria gordetzen duen makina da, eta bere «zerga» eskatzen du. Kastitatearen aldeko borroka batzuetan oso luzea izan daiteke. Horrelakoetan, esaldiak dioena egin behar da: «Tentazioarekin ez egin bake-itunik, baina ez bakea galdu ere tentazioa sentitzeagatik». Borroka luza

daiteke, baina merezi du borroka egitea eta Kristok aipatzen digun zoriontasuna lortu arte borrokalari izatea: «*Zoriontsuak bihotz-garbiak, haiek baitute ikusiko Jainkoa*».

b) ***Heziera afektibo-sexualerako ikastaroak***

Elizaren ekintza soziala gizartearen beharretara egokitzen joan da mendeen joanean. Goi Erdi Aroan, erromesak bidelapur eta erasotzaileengandik babesteko, ordena erlijiosoak sortu ziren. Ospitaleak eraiki ziren horien beharra zen lekuetan, besteak beste erregeak eta jauntxoak beren gerratan buru-belarri sartuak bizi zirelako, beste beharrez arduratu gabe. Errekonkista aldian, gatibuak askatzea helburu zuten beste karismak sortu ziren Elizan (gatibuak askatzeko egiaz eta benetan!). Behe Erdi Aroan, unibertsitateak sortu zituen Elizak (ez dugu ahaztu behar Elizakoak izan zirela Europako lehenengo unibertsitateak). Eta zer esan San Joan Jainkoarenari buruz eta eritegietarako haren karismari buruz? Eta duela gutxiago, Eliza arduratu izan da hiri industrialetako kanpoaldean baztertuen hezieraz ere (hor dugu

San Joan Bosco, Gazte Pastoraltzako hezitzaileen egiazko eredua!)

Eta gaur egungo aldian, zein izan daitezke Elizak egin ditzakeen sozial ekarpen handiak? Historian zehar gertatu izan den bezala, beharra non, han egin izan du Elizak, une historiko bakoitzean, bere ekintza soziala. Gaurko Espainia honetan sumatzen den behar handienetako bat giza maitasunean heztea da, dudarik gabe. Horren baitan dago, neurri handi batean, gure gazteen zoriontasuna; giza maitasunaren egiazko zentzua aurkitzearen eta heldutasun afektibo-sexualari buruzko hezieraren baitan. Ez dut hemen aipatuko bideratua dagoen hainbat ekimen, baina asko dira eta ondo eratuak. Agian ez dago oraindik ondo lortua Famili Pastoraltzaren, Hezkuntza Pastoraltzaren eta Gazte Paastoraltzaren arteko koordinaketa, heziera afektibo-sexualari buruzko eskaintza on bat egin ahal izateko; landu eta aurrera eraman behar dugun eginkizuna dugu hau.

c) *Edertasunean hezi*

Gauza jakina da, Eliza ez dela gaur egun, garai batean izandako arte alorreko babeslea eta laguntzailea. Errenazimendu aldian artistak

gotzaindegi inguruetara hurbildu ohi ziren, beren artea erakusteko enkargu eta agindu eske; orain Ministerioetara joaten dira, eta kultura eta arte alorreko Sailburu- eta Zinegotzi-bulegoetara. Baina alor honetan ere Elizak badu, horien ordezko gisa, bere eginkizun oso garrantzitsua: edertasunaren inguruko heziera ematea.

Gure egunotako gauza penagarrietako bat –lizunkeriaren zauriarekin lotua dagoena–, edertasunaren arauak gorputzaren eredu erotiko jakin batera murriztea da; pertsonaren barne izaeratik eta beronen ondasun espiritualetik oso urruti dagoen eredura murriztea. (Zahartxoagoak garenok gogoratzen dugu Rikardo Coccianteren abesti hura «Bella sin alma»). Horrela gorputza ez da arimaren ikonoa, gure grinen kilikatzailea baizik.

Egia da, Eliza ezin daiteke orain arte-lanen babesle izan, ez behintzat zentzu ekonomikoan. Baina bada babesteko beste era bat erabakigarriagoa dena eta hiru traszendental deituak biltzen dituena: edertasuna, ontasuna eta egiatasuna. Hain zuzen, bene-benetan sinesturik gaude, «edertasuna egiatasunaren distira dela»; eta era berean, «santutasuna edertasun erabatekoa dela».

Jainkoa ezagutzeko erabili izan diren arrazoizko bideekin batean, Elizak beste bide existentzialak erabili izan ditu beti, esate baterako «*Via Pulchritudinis*» (edertasunaren bidea) deitua. Edertasuna Jainkoa aurkitzeko bidetzat erabiltzea, alegia. Egia da, guk sinesten dugu edertasuna «agerpena» dela, ez «itxura hutsa». Izan ere, «Jainkoaren misterioari buruz sumatzen dugun lehenengo gauza ez da egiatasuna, edertasuna baizik» (Von Balthasar). Edertasuna da existitzearen misterioa ulertzeko oinarrizko giltza. Bizitza gozatzeko eta betikotasunaren betera zabalik egoteko deia egiten digu. Edertasuna, gure adimena betikotasunaren zentzura zabaldu eta materia antzaldatzen duen Jainkoaren Espirituaren dirdaia da.

Gure Aita Santu izandako Benedikto XVI.a maitea «edertasunaren alderdi» hau azpimarratzen ari da, Ebanjelizatze Berria gauzatzeko Elizak egin beharreko bideetako bat bezala. Badirudi bat datorrela bera ere Dostoievskiren esaldiarekin: «Edertasunak salbatuko du mundua». Baina guretzat edertasuna ez da «itxura ederra», «erakargarria», «gustagarria»... izatea. Edertasuna guretzat ez da gauza estetikoa. Edertasuna, bere esanahi bete eta bikainean, «santutasunaren» berdintzat jotzen da.

Hirugarren zauria: MESFIDANTZA

Zein zentzutan har daiteke mesfidantza «zauri afektibotzat»? Mesfidantzak, berez, ez du zauri afektibo izan beharrik, Jainkoaren Legeko Lehenengo Aginduaren kontrako bekatua baizik; hala baitio: «*Maita ezazu Jauna, zeure Jainkoa, bihotz-bihotzez, gogo osoz eta adimen guztiz*».

Baina gauza bat da mesfidantzazko bekatua, eta beste gauza oso desberdina «mesfidantza- sindromea» deritzana. Honek «norberarenganako segurtasunik eza» esan nahi du, eta besteengan eta Jainkoagan konfiantza izan ezin handia sortzen du. Mesfidantzaren zauri afektiboak oinak sendo ez izatea esan nahi du, etorkizunari beldurrez begiratzea.

Alor honetan ere, lehen pansexualismoari buruz esan dugun gauza bera gerta dakieke belaunaldi berriei: arazo honek duen garrantziaz ez jabetzea, giro horretan sortuak izan direlako, airearen presiora ohitu egin gara eta ez dugu presio hori nabaritzen! Baina horrek ez du esan nahi hori nozitzen ez dugunik! Gure adinekoekin hitz egiten dugunean eta haien kontuak entzuten ditugunean, harritu egiten gara ikustean, zenbateraino galdu diren

auzo, senitarte, lagunarte, etab.ekiko, giza harremanak. Bati baino gehiagori entzuten diogu esaten, beraiek jaio eta bizi izan ziren etxean ez zela etxeko atea giltzaz ixten... Gure kulturan, aldiz, asko eta asko dira beren Twiterrean edota Facebookean isolaturik bizi diren pertsonak eta gazteak. Bakardadea da gure garai honetako gaitz handietako bat; eta zail izango da hori sare sozialen bidezko komunikazioaz konpondu ahal izatea; izan ere, anonimatoan egin ohi dira askotan harreman horiek, «nick» gezurrezkoa edota ezin identifikatua erabiliz.

Gertaera honetan bere eragin berezia izan izango du, nekazal giroko bizitza-eratik gune urbanoetan bildu izan den jendetzaren bizitza-erara aldatu izanak; baina, dudarik gabe, esperientzia txarrak izan dira mesfidantza-sindromea sortzeko eragin erabakigarriena izan dutenak. Geure inguruan norberekoikeria nabaritzeak geure baitan gordetzeko joera sor dezake, eta horrek lagun hurkoarenganako mesfidantza hedatua ekartzen du, eta baita Jainkoaganako mesfidantza ere.

Mesfidantzaren zauri afektiboa hedatzekontuan eragin erabakigarrienetakoa izan duena familietako dibortzioa izan da, eta familia-

ren egonkortasunik eza. Haur edota gaztetxo batek bere gelatik eztabaidan haserre sumatzen dituenean bere gurasoak, elkarri errespetua galduz, zalantza handiak eta mingarriak sortzen zaizkio bere familia horri buruz, ez baitaki hurrengo egunean familiak bizirik jarraituko ote duen edota elkarrengandik bereizteko erabakia hartuko ote duten... Ez dezagun zalantzarik izan, horrela mesfidantza-sindromerako oinarriak jartzen ari direla. Pertsonaren egonkortasunari eutsi beharko lioketen familiako oinarriak desegiten direnean, zauri afektiboak bista-bistan gelditzen dira... Bestalde, horri erantsi behar zaio, aginte-printzipioa eta erreferentzia moralak krisian sartzen direnean, horrek zaildu egiten duela Jainkoaganako konfiantza sendotzea. Gazte askok ez du bere bizitzaldian, harrotasunez begiratu ahal izan dion erreferentzia-eredurik izan. Zauri afektibo asko nabaritzen dugu geure baitan, eta egoera horrek alor moralean umezurtz sentitzera eramaten gaitu.

Horrelako zerbait esan genezake adiskidetasunari eta ezkongaietako harremanei buruzko krisiaz ere. Adiskidetasun-alorreko saldukeriak eta bikote-harremanetako leialtasun ezak etsipena eta mesfidantza hedatua sor dezake denenganako eta gauza guztietarako.

Bizitzari berari buruz ere fidagaitz izateraino. Eta horrek biziaren sortzailea den Jainkoaz ere ez fidatzera eraman gaitzake.

Bestalde, asko dira eta oso larriak mesfidantza-sindromearen ondorioak: harreman sozialak hondatzea, bakardade pertsonala, susmo txarrak eta hipersentiberatasuna... Esan dugunez, esperientzia erlijiosoa bera ere kaltetua gerta daiteke mesfidantza-sindrome honen ondorioz. Denekiko fidagaitz izateko joera duenari, kosta egiten zaio Jainkoaz fidatzea. Ez da egia, etsipenera eramaten gaituzten bizitza honetako esperientziek gure babesa Jainkoagan aurkitzera eramaten gaituztenik; ez dirudi behintzat hori horrela denik oraingo belaunaldiei dagokienez.

Horrela bada, ikus dezagun orain zertan ahalegindu beharko genukeen gazteei Ebanjelizatze Berria eskaintzen diegun une honetan, eraginkorrak izan gaitezen mesfidantzaren zauria sendatzen. Pausoz pauso abia gaitezen:

a) *Elkartasun-esperientzia Elizaren baitan*

San Joan Boscoren jarduera pastorala eredu ona da, gazteen mesfidantza-sindromea nola senda daitekeen ikusteko; ebanjelizatzaileak

gazteenganako konfiantza-jarrera izan behar du, hortik sor daitezkeen arriskuez beldurtu gabe. Gazte batek sumatzen duenean fidatzen garela berataz, pixkana-pixkana ardura txiki batzuk beraren eskuetan uzten ditugula, Elizako kide bizitzat hartzen dugula eta ez bezero huts bezala, orduan hasten da bere mesfidantza-joera gainditzen. Aipatu jarduera pastorala honela laburbil genezake: Norbaitek Jainkoagan konfiantza izatea nahi baduzu, hasi zeu berorrengan konfiantza izaten.

Elizaren baitako elkartasun-esperientzia pertsonaren berarenganako interesa izatera iritsi behar du, eta ez pastoraltzaren interesa izatera bakarrik. Hau da, gazteari ezin diogu geure interesagatik arduratzen garen irudia eman: sakramentu bat eman nahi diogulako bakarrik, alegia. Ez! Gaztea bera maite dugu eta bera da interesatzen zaiguna, beraren bizitza, beraren kezkak, beraren arazoak... Eta hortik sortuko da, jakina, bera Kristogana eramateko gure gogoa. San Joan Boscok zioen bezala: «*Maita ezazue gazteek maite dutena, eta gazteek ikasiko dute zuek zer nahi duzuen haiek maita dezaten*».

b) ***Konfiantzaren eta norberaren erabateko eskaintzaren Ebanjelioa***

Jesu Kristoren Ebanjelioa konfiantzaren Ebanjelioa da. Pasarte asko aipa dezakegu horri buruz: Pedro ur gainean oinez ibili zenekoa, Jesusek egiten duen deia kontura gaitezen nolako maitasunez zaintzen dituen Jainkoak zelaietako loreak, itsasoko ekaitza baretu zuenekoa, etab. Konfiantza izaten ikasteko bide bat geure beldurrei aurpegi ematea da, horiei begietara begiratzea; eta, Kristorekin bat eginak gaudenean beldurrak barreiatu eta urtu egiten direla nabaritzea, elurra eguzkitan bezala.

Bada konfiantzaz guri heziera emateko indar berezia duen San Pauloren pasarte bat, Erm 8, 31-39koa, alegia: «*Horiek horrela, zer esango dugu? Jainkoa gure alde badugu, nor gure aurka? Bere Semea bera heriotzatik libratu ez, baizik eta gu guztion alde heriotzara eman zuenak, nola ez digu harekin batera dena dohainik emango?*

Nork salatuko ditu Jainkoak aukeratutakoak, Jainkoak berak zuzentzat onartu baditu? Nork kondenatuko ditu? Jesu Kristok?, hil zenak?, piztu ere egin zenak?, Jainkoaren eskui-

naldean dagoen eta gure alde otoitzean ari denak?

Nork aldenduko gaitu Kristok digun maitasunetik? Atsekabeak, larriak, erasoaldiak, goseak, jantzirik ezak, arriskuak, ezpatak? Liburu Santuak dioen bezala: «Zuregatik egunero hilzorian gauzkate, hiltzeko ardiak bezala garabiltzate».

Horietan guztietan erraz ateratzen gara garaile, maite izan gaituen hari esker. Ziur dakit: ez heriok eta ez bizik, ez aingeruk eta ez goiko beste indarrek, ez oraingok eta ez gerokok, ez inolako boterek, ez ortziko eta ez lur azpiko indarrek, ez beste inolako izakik, ez gaituela aldenduko Jainkoak Jesu Kristo gure Jaunagan agertu digun maitasunetik»... Hona hemen San Paulok irakasten digun bidea mesfidantza-sindromea sendatzeko: gure beldurrei aurrez aurre begiratzea, eta aldi berean Kristorekin sendo bat eginik egotea:

Zeri izango diogu beldur? Ilunari?

–Kristo da gure argia.

Bakardadeari?

–Kristo dugu bidelagun.

Pobretasunari?

–Kristo da gure altxorra.

Irainei?

–Kristo da gure ohorea.

Geure ezintasunari?

–Espiritu Santua dugu era guztietako grazien emailea.

Gaixotasunari edota heriotzari?

–Kristo da Piztuera eta Bizia.

Aitagan konfiantza izateko eskolarik hoberena Jesu Kristogan daukagu egiaz: Kristorekin gertatzen den bezala, gu ere Aitagandik izatea «hartzen» dugun neurrian «gara» izan! Egia da, batzuetan bizitza iluna gertatzen zaigula, argia baino gehiago; baina gurutzetik «*Ene Jainko, zergatik utzi nauzu*?» esan zigun Kristogandik ikasia dugu berarekin batera esaten: «*Aita, zure eskuetan uzten dut neure espiritua*!»

* * *

Espainian egiten den Gazte Pastoraltzako Lehenengo Kongresu honetan parte hartzen duzuen gazte adiskideok, badakit gauzak laburturik ematen direnean arazoak sinpleegi azaltzeko arriskua dagoela. Hitzaldi honetan

belaunaldi berrien zauri afektiboak aipatzean hiru zauri zehatzetan laburbiltzeko ausardia izan dugu; baina horrek ez du esan nahi beste zauri asko izango ez denik. Hala ere, aipatu ditugun hiru zauriak –nartzizismoa, pansexualismoa eta mesfidantza– izan daitezke une honetan, gazteengan eraginik handiena dutenak; baita hainbat heldurengan ere.

On izango da hemen esaldi teologiko hura gogoratzea: «graziak ez duela natura ordezkatzen, baina jaso egiten duela». Hau da, badaiteke askotan gure zauri afektiboak oso larriak izatea eta ikuspegi psikologikotik guztiz sendagarriak ez izatea. Jainkoaren graziak ez du natura ordezkatzen, miraribaten bidez izan ezik –gerta daitekeena, sarritan ez bada ere–. Zoriontasunerako gure bidean, zenbait alditan, berehalako batean eta erabat sendagarriak ez diren zauriak onartu beharra izango dugu, baina Kristoren grazia eta Ebanjelioaren argia «bidelagun», «kontrasterako» gai eta «aringarri» izan ditzakegu.

Hitzaldiaren hasieran esan bezala, ez dugu zalantzarik izan behar, gazteen oraingo belaunaldiak nozitzen duen egoera afektibo larria aukera berdingabea dela gazte guztiei «Jainkoa maitasuna dela» gogorarazteko, maitasun-el-

kartasunean bizitzeko bokazioarekin sortu gaituela Jainko horrek, eta beharrezko dugula Kristoren Ebanjelioaren betiko berritasuna aurkitzea geure betetasuna lortzeko. Eta ba al dakizue gauza bat?... Bihotza ez da hausten duenarena, konpontzen duenarena baizik! Hau da, gaztearen bihotza Kristoren Bihotzarena da.